

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1989ko Urriak 20 37. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

### Euskaltegiak aurrera



Joseba



**HOTZ - BERO**

**zibro**  
**kamin TURBO**

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98

79 67 54

ARRASATE

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	795300
Igualatorioa .....	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	793900
(emakumeak) .....	794411
Buru osasunerako zentrua .....	799011

### Gurutze gorria:

Bergara .....	765576
---------------	--------

### DYA

Antzuola .....	766291
----------------	--------

### Anbulatorioak

Arrasate .....	791357
.....	799722
Oñati .....	780852
Eskoriatza .....	798896
Aretxabaleta .....	797458
Aramaio .....	(945) 455116

### Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak .....	458744
--------------------------------	--------

### Udaltzaingoa:

Oñati .....	780411
Bergara .....	761469
Arrasate .....	791439
Aretxabaleta .....	791052
Eskoriatza .....	790322

### Ertzantza:

Arrasate .....	797199
----------------	--------

### Suhiltzaileak:

Udal taldea .....	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	782800

### Matxurak:

Urak (udal zerbitzua) .....	790900
Elektrizitatea (Iberduero) .....	790581
Gasa .....	900 400 523
.....	79 78 44
.....	79 76 78

### Garraioak:

Taxiak .....	791222
P.E.S.A. ....	791419

### Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza .....	797211
Abaroa jubilatuen egoitza .....	798157

### Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak .....	798777

## 20 OSTIRALA

— Zinea: Alai: "Indiana Jones, La última cruzada", 7etan eta 9,30etan.

Novedades: "Agárralo como puedes", 10,30etan.

— Goardiako farmazia:

J. A. Irizar, Erguin.

## 21 LARUNBATA

— Zinea: Alai: "Indiana Jones, la última cruzada", 5etan, 7,30etan eta 10etan.

Novedades: "Agárralo como puedes", 7,30etan eta 10,30etan.

— San Frantziskoko Jaiak:

• 10,30etan, suzirien jaurtiketa eta ezkilien joaldia.

• 11etatik 2etara, Haur jolasak Sebero Altube plazan.

• 5etan, Marrazki Txapelketa, sari banaketa eta txokolatada.

• 7,30etan, buruhandiak eta erraldoiak.

• 8etatik 9etara, Arrasate

Musikaleko akordeoi orkestraren emanaldia.

• 10,30etatik 2etara, dantzaldia "Txatxipel" taldearekin.

— Amaia antzokian: "Gasteiz" antzerki taldearekin, "Todas tene-mos la misma historia" obra, 10,30etan.

— Goardiako farmazia:

L. Amezua, Santa Marinaran.

## 22 IGANDEA

— Zinea: Alai: "Indiana Jones, la última cruzada", 5etan, 7,30etan eta 10etan.

Novedades: "Agárralo como puedes", 5etan, 7,30etan eta 10,15etan.

— San Frantziskoko Jaiak:

• 9,30etan, suzirien jaurtiketa, kanpaien joaldia eta dultzaierroak.

• 10,30etan, "Il. Haur Krossa"

• 12etan, Meza nagusia.

— Osintxun: Autokross proba, arratsaldeko 4etan.

— Goardiako farmazia:

A. Ruiz, Magdalena.

## 23 ASTELEHENA

— Zinea: Alai: "Indiana Jones..." 7etan eta 9,30etan

Novedades: "Agárralo como puedes", 7,30etan

— AEDren egoitzan: Mintegia. Gaia: "Herri Sozialisten egoera" 7etan.

— Goardiako farmazia:

M. Morales, San Andresen.

## 24 ASTEARTEA

— Zinea: Alai: "Indiana Jones..." 7etan eta 9,30etan.

— Goardiako farmazia:

A. Azkoaga, Ferrerías.

## 25 ASTEAZKENA

— Goardiako farmazia:

Español, Iturriotz.

## 26 OSTEGUNA

— Zinea: Alai: "Un lugar llamado milagro", 7etan eta 9,30etan.

Amaia Antzokian: "Sammy y Rosie duermen juntos", 8,30etan.

— Goardiako farmazia:

M. Corcuera, Musakolan.

## ERAKUSTALDIK

**Etxe Aundin:** Juan Jose Altuna Alkizuren obrak hilabete osoan zehar izango ditugu ikusgai Oñatin.

## IKASTAROK

**Famili eta Gizarte-heziketarako zentruan:** Pintura eta Marrazki ikastaroak Asteartean hasi ziren. Asteazkenean, *Sukaldaritza* eta *Gozogintza* ikastaroak, 30 ordu. 6,30etatik 8,30etara. Asteazkenean hasi zen ere *Eskulan* ikastaroa, 25 ordukoa.

Ostegunean, *Zeramika* ikastaroari ekin zioten; 30 ordu. Eta gaur bertan *Otzaragintza* ikastaroak. Informazio gehiago 790459 tfnoan.

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**

Arrasate Press taldea (AED)  
Arrasate pasealekua, 3-Bis, behea.  
20500-ARRASATE -TF.79 71 64

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jon Andueza  
Bego Zubia

**Publizitatea:** Ruth Otaduy

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix  
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki  
Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero,  
Juan Martin Elexpuru, Mikel  
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta,  
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,  
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila  
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion  
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo  
Uribarren, Iñaki Aranburu,  
Hankamotzak.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa arduraduna:**  
J. L. Arejolaleiba

**Harpidetzak:** Arrasate pasealekua 3  
Bis, behea. 79 71 64


**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 4.500 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.



## Herrixken burujabetasuna

Marshall Mac Luhan izan zen, hogeitamar urte dira dagoeneko, telebistak mundua herrixka haundi bilakatuko zuela iragarri zuena. Betean asmatu zuen. Gu bezain sendi arteko egin zaigun etxe-aparailu horrek gugandik milaka kilometrotara diren beste lurretan oinaze eta alaitasunez jakitun eta partaide egiten gaitu. Munduaren zorion eta zoritxar denen lekuko bihurtu gara.

Idatzizko komunikabideek albisteak hausnartuagoki eskaintzeko bidea aukeratu behar izan dute, telebistak bapateko irudiaren lehentasuna kendu dienez geroztik. Eguneroko prentsa idatziak ahalegin guztiak egin arren ez da inoiz Marconiren galaxian aurki daitekeen arintasun eta malgutasunetara iritsiko.

Mac Luhanengana itzuliz, haren teoria beste ikuspuntu batetik aztertuz ondorio desberdinetara -baikorragoetara ote?- hel gintezke. Edozein herrixkatan diferentzia nabari mamitzen da etxe batetik bestera. Beste ihesbiderik gabe, belaunaldiz belaunaldi, elkarren ondoan bizitzera kondenatuta iraun duten auzokideen artean, mendeetako hautsak ez ditu atarte guztiak era berdinez es-

taltzen. Desberdintasunak argiago ageri zaizkigu herrixketan hiri haundietan baino. Arrazoa eguneroko elkar ukitze zuzenak eskaintzen duen ezagutzan bilatu behar dugu. Makrohirietan bamiz-geruzak hiritarrak bat dagitzan bitartean, herrixketan giza-grinak azalean agertzen dira, desberdintasunak markatuz.

Giza-garapeneko eredurik adierazgarrienetakoa izanik eta demagogia merketatik urrun, telebista ezinbestekoa dugula aitortu behar da. Informazioa -informazio ona- askatasun intelektualerako lehen urrats bihurtu zaigunean, informazio-jarioan eragozpen ipintzearen aldekoa izan ohi da beti boterea.

Txori-ikusmen inozoz ikertuta, lur azala ez da batera monotonoa. Gizarte suntsitzailea da -eritziak alde batera edo bestera bideratzean gizona neurri berberaz itxuratu nahi dituen. Uniformatu gura gaituzte, guk aukeratu ez ditugun jantzi arrotzez. Noski, asmo horri ezetz borobila ezarri beharrean gaude... batez ere iraungi zorian aurkitzen den gurearen gisako Herri bateko sufritzaile garenok.

*Jose Mari Velez de Mendizabal*

# UGARAN

## jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

**enpresa**  
**bazkariak**  
**eta famili bilerak**

**Zuzendari jauna**

Zuen laguntzaile baten bitartez, Arrasate Press astekarian egiten diharduzuen lan eskerga ezagutzeko aukera izan dot. Hau dala eta, jaso eizuez bene-benetan zorionik beroenak horren ekintza bikainagaitik.

Dana dala, uste dot bizkaiera landuari be lekutxoren bat egin beharko zeunskioela, Arrasate inguruko bizkaieraz eta batuaz egiteari oso ondo baderitxat be. Nire eritxian, etxeko euskera bizi maila landuago batera hurrerutzen ahalegindu behar dogu. Horretarako Euskaltzaindiak berak be erretzu euskun bidea *Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza* izeneko liburuxkan. Edozelan be, ez neuke gura nire eskaritxo edo aholku hau txartzat hartu zengian, ezta inondik inora be.

Eskaritxo hori egin eta gero, bes-tetxo bat egin gurako neuskizu, harpidedun egin naizun hain zuzen, izugarri interesatzen jat zuen astekaria astero etxean jasotea eta, badakit zuen bailaran bizi ez naizena baina. Nire eritxiz, oso interesgarria izango litzateke zuen esperientzia hori beste zenbait herrialde euskaldunetara zabaltzea, herrian herriko ezaugarriek lan hau burutzea guztiz baldintzatzen badabe be (alderdi soziolinguistikoak...).

Aurretiaz eta amaitzeko, ez zindukedaz aspertu gura eta, eskerrak bialtzen deusudaz danagaitik, bide batez, orain arteko legez zuon lanari ekin deiozuen eskatuaz.

Besterik barik, agur eta hurrengo arte.

*Ander Aurre*

**Zorionak**

Nire zorionik beroenak daramazuen martxagaitik. Arrasate Press geroago eta gehiago gustatzen zait. Oso entretenigarria da eta samurra irakurtzeko. Tejeroren argazkia mundiala izan zen. Ez dakit nondik atera zenuten baina seguru nago argazki hori ez dela inon zuenean baino lehenago atera. Horri *primizia* deitzen zaio, ezta? Zorionak.

*Jon Ander*

**Zein gatxa dan euskaldune izatie!**

Ondion be holan gabitz, baina behin eta barriro kalera urten eta danba, kale guztixetan atie ixten douzkue. Dendara juen eta erdera baten, gainera euskaldunek; tabernetan be, beste horrenbeste. Nik neure buruari, baina zer don/k hau?

Holan ezkabitzan/k ondo, ez! eta zer eifi? Alde guztixetan dakiune eifi eta kitto, ezelako bildurrik barik, lotsarik barik. Dakizun apurre zabaldu bestiek be ikasi daixien, eta ezta kixenak ikastie dauko batak bestie euskeraz eitteko.

Bada sasoie konturaketako euskaldunok edozein lekuten in bioule euskeraz, erdeldunek diexen eta ez-tiexenekin.

Dakixenak in daixela eta eztakixenak ikasi daixela.

**Kanposantu berriaren inguruan**

Arrasate kanposantu berriaren beharrean dagoela, ez dut uste inork ukatuko duenik. Hala eta guztiz ere, aspaldi honetan berau San Kristobalen egingo dutelako zurrumurrua zabaldu da herrian. Hau egia izatekotan, Udalekoei zenbait galdera zuzendu nahi nieke. Kontutan izan da San Kristobal herri inguruan erai-kuntzarik gabe dagoen leku bakantakoa dela? Ez litzateke hobe izango Monterronetik gora dena parke bihurtzea?

Monterron Parkeak gaur egun zabalera ederra du. Hara joaten den gehiengo etxe inguruan geratzen bada ere, zenbaitek bidean gora egin eta San Kristobalera joateko ohitura du. Nork erabakitzen du parke baten zabalera? Ez al dugu arrasatearrok parke nano bat baino gehiago merezi?

Eraikitzea ondo dago, baina bizi-rik gauden arrasatearron osasuna ere kontutan hartzekoa da, eta ibiltzeko ez dago Udalaitzera joateko edota auto artean ibiltzeko beharrik.

*J. B.*



**gili gili**  
Iturriotz, 9 Tfnoa:799457

**GIROA AROTZAK**  
Iturrioz 14, ARRASATE

**HIRE**  
Liburu eta oparidenda  
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

**RAFAEL LORENZO**  
**MEDIKU ODONTOLOGOA**  
Zarugalde 3, 1. B.  
Tfnoa: 79 35 80  
ARRASATE  
**ZEUEKIN GAUDE**

**K  
L  
I  
N  
I  
K  
A  
D  
E  
N  
T  
A  
L  
A**

## Joaten al zara zinera?



**Urri Urizar**

Bai, lehen baino gehiago. Aspaldi honetan tabernetako monotonía eta, .purtzeko joaten naiz.




**Arantxa**

Ez, ikusteari utzi nion eta orain te-  
lebista eta bideoa daudenez, ez naiz  
joaten.



**Lorenzo Martinez  
(langilea)**

Bai, betidanik zinera joatea asko  
gustatu izan zait, hala ere azkenaldi  
honetan denbora gutxiago dudanez  
ez naiz joaten hainbeste.



**Luis Angel  
(ikaslea)**

Noizean behin, pelikula interesga-  
rriren bat emanez gero joaten naiz.

### HERRI BATASUNAREN Kanpainaren barnean

**URRIAK 21  
KALEZ KALE**

Herrian zehar  
konzentrazioa  
5etan  
IRATI tabernan

**URRIAK 27  
MITINA**

Polikiroidegian 10etan  
\* Xabier Zubizarreta  
\* Iñaki Altuna  
\* Iñaki Esnaola  
\* Trikitixa, Rock jaialdia



**ZURE  
BOTON**

**HERRI**

**BATASUNA**

“Euskaradun Euskal Herria izan behar du. Besterik ezin den bezala, lotsarik gabea. Maximalismo eta marginalizazio guztitik aparte. Euskara ez bait da sator-zulotan gordetzeko, ezta marginalizatutako sekta-hizkuntza bihurtzeko ere. Gizarte bizitzako normaltasuna da eta euskarak irabazi behar duen apustua. Honetarako beharrezkoak diren pauso guztiak lotsarik gabe, konplexurik gabe emanaz”.

*(Jose Antonio Ardantza Lehendakariak Oñatiko Unibertsitatean)*

“Defentsak eskas babestuta, hutsen zain, atxabaltarrak behin eta berriro erakutsi du oso denboraldi ona egiten ari dela, bere karrerako onenatarikoa. Heldutasunean, gailurra lortu du. Guztiek goraiatu dute Bartzelonan egin duen lan zaila, atearen inguruan; orain, berriz, Mundialak datoz eta hemen zalantzarik gabe, duen kategoria internazionala erakusteko aukera ederra izango du. Eskubete lan izango du. Bestelako atezaintzat errespetua da zabal-tzen duena, lehenago Iribar eta Arkonadak egin bezala. Benetako “opena” da, Gipuzkoako futbolaren atezainen beste eredu bikaina”.

*(Luis de Andia kazetariak DV egunkarian)*

“Ifñigo Idarretarentzat, Bergarako pilotalekuan eta euskal kantxetan planteatutako erronka, politto-politto, frontoietara joateari laga dion publikoa berreskuratu behar da eta batez ere, pilotazale berriak; gradak zahartu eta gazteak ez direlako pilotalekuetara joaten. Idarretaren eritziz, egoera hau pilota ezagutzen ez dutelako gertatu da. Ulergaitza bada ere, ‘pilota ezezaguna da gazteentzat, beronen hurrean bizi direnentzat, baina ez dute bizi duela urte batzuk bezala, frontoira joatea ohizko ekintza zenean”.

*(J. A. Migura kazetariak DV egunkarian)*

Aspaldi zure irratinobela bat eman zen Bilboko Herri Irratian. “*Flannery eta bere astakiloak*” izan zen, bestalde, zure azken lana telebistarako. Harez geroztik, ez dugu zure lanen berririk izan medio haue-tan. Zergatik?



Flanneryrena egia esan, ez zen batere esperientzia ona izan. Nire eritzirako nahiko istorio libertigarriak ziren eta erabat zapuz-tuta gelditu da. Agian errua nirea izango zen. Orduan Gorordo zen zuzendaria. Ematen ez zutenez, galdetzera joan eta “baina ez genuen orain bi hilabete eman, ala?” Maitasun gutxi ikusten da hor egon den lanerako. Berdin tratatzen dute zure lana nola Dallas, esate baterako, eta gainera aurpegiatzen dizute zergatik ez zaren amerikanoa eta zergatik ez duzun hori Ameriketara egin, berak merkeago erosi ahal izateko. Horregatik, behingoz behintzat infemuan egon beharra dagoela pentsatu nuen, baina ez bitan. Nire buruan ez dago etxe horretan sartzeko batere gogorik.

Irratiari dagokionez, orain bederatzi bat urte eman zen nobela hura, baina ez orain bospasei urte idatzi nituen beste hogeitabost ordu istoriotan. Hor egongo dira, nonbaiten. Grabatu zirenak lagunarte-an egin ziren, dirurik gabe, koarto txiki batean. Gero beste egoera berri hau etorri da, diru publikoa dago gauzak egiteko, baina ematen du eragozpenak baizik ez daudela. Lehenago musutruke egiten genituen eta orain ezin dira egin garestiegiak direlako? Hor zeozer gertatzen da.

*Bernardo Atxaga  
Idazlea*

## Arrasatearrok adi!

### ARGA altzariak

*eraberritze-obrak direla eta, beherapen handiak prezioetan*

Zerkaosteta 15, Tfnoa: 79 07 76 Arrasate



Otalora 2, ARRASATE




**BELUN  
TABERNA**

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

# DENDARABA



## MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

**PROMOCIONES MARKULETE, S. A.**


## **NABE INDUSTRIALEN SALMENTA**

**Mendi-Etxebarrin**

**445 m<sup>2</sup> tik aurrera sarbide zabalarekin**

- \*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.
- \*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia
- \*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60  
27 79 60  
Arrasate 79 97 95



*Urriak 28, larunbata  
Gaueko 10,30etan. Amaia antzokian*

## **IMANOL "Muga beroetan"**

**Sarrerak:**  
*Aldez aurretik 400 pta.  
(Hire, Biona eta Kajoi taberna)  
Takilan 500 pta.*

Arrasateko Udala  
Gipuzkoako Foru  
Aidundia

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11 Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE



**PEÑACOB**  
Auto-Eskola

Zarugalde, 46  
79 14 01

**ARRASATE**



## prentsaren hegia

### OSTIRALA 13

**CORREO:** "Deba Garaiko Udal Elkarteak Diputazioari Arlabanen hobekuntza agertzeko eskatu"

**DEIA:** "Udalak babes ofizialeko etxebizitzak bultzatuko"

**DV:** "250.000 pezeta Arrasateko argazki eta bibliografi inentarioa egiteko"

**EGIN:** "Arrasatek laster izango auzoetan 5 liburutegi berri"

### LARUNBATA 14

**CORREO:** "Aurrera doa Arrasateko San Andres auzoa erreabilitatzeko azterlana"

**DEIA:** "Eskubaloi taldeentzat denboraldia hasi"

**DV:** "Fatxadetako gas instalazioa hodi bakar batez egin ahal izango"

**EGIN:** "Pankartak, musika, panpinak, bertsoak..., HBren kalez kale erreibindikatioan"

### IGANDEA 15

**CORREO:** "Lau lizentziatuk zenbait azterlan sozio-ekonomiko burutuko Arrasaten"

**EGIN:** "Bihar aurkeztuko Gobernu-Batzordean Arrasate Telebistarentzako lokalak egokitzeko proiektua"

**DV:** "Mondraren direktiba konfiantza du entrenatzaile eta jokariengan"

### ASTEARTEA 17

**CORREO:** "Deba Garaiko Udal Elkarteak aldaketa gehiago eskatu uz-partzuergoaren estatutuetan"

**DEIA:** "Mondraren lehendakariak konfiantza du teknikari eta jokariengan"

**DV:** "5 negatibo badu ere, Mondrak berriro konfiatuko entrenatzaile eta jokariengan"

**EGIN:** "Musakolako kiroldegia birmoldaketa-obrek 37 milioi kostako"

### ASTEAZKENA 18

**CORREO:** "Arrasate Telebista estudioak La Metalurgica lantegi zaharrea kokatuko"

**DEIA:** "Arrasate telebistarentzako obra-proiektua onartu"

**DV:** "Arrasate Telebista Arrasateko «Metalurgica Cerrajera» zaharrea kokatuko"

**EGIN:** "Metalurgica zaharrea Telebista kokatuko"

### OSTEGUNA 19

**CORREO:** "Arrasateko Udalak alternatibak aztertuko etxebizitza babestuetan aditua den enpresa espezializatu batekin"

**DEIA:** "Gaur Leopoldo Panero-ren hitzaldia Monterronen"

**DV:** "Altamirako babes ofizialeko etxebizitzatarako eskarien epea hilabetez luzatu"

**EGIN:** "Hitzaldia eta zine-kluba, kultur eskaintza bi gaurko"

**G. EXPRESS:** "Arrasate Telebista proiektua aurrera"

## Usteak uste...

Gipuzkoa eta Nafarroa lotuko dituen Leizarango autobia in- guruko gorabeherak komunikabi- de guztietako lehen planoak bete dituzte ETA tartean sartu denetik.

Erantzuna berehalakoa izan da. HB ez beste talde guztiek gaitzetsi egin dute ETAREN joka- bidea eta HBren jarrera haren aurrean.

Gogoan izango dituzue behin baino behiagotan HBri dituen alkatetzak kentzeko PSOEK plaza- ratutako mehatxuak. Hasieran bere botoemaileei zuzendutako aitopenak ziruditen eta hor gelditu ziren, linbon. Gaur arte.

Leizarango autobia liska- rrean ETAK bere presioa areago- tzen duen neurrian, badirudi gai- nontzeko partiduek prezio politi- ko handia ordain erazi nahi diote- la erakunde armatuari, HBren isolamenduaren bitartez. Dago- neko iragarri dute ez direla inon- go mahai ingurura joango HBre- kin batera. Horretaz gain, ezer gertatzekotan, berari eskatuko dizkiote erantzunkizunak.

Testuinguru honetan, indarra hartzen ari da berriro HBren es- kuetan dauden alkatetzak kendu egingo dizkiotela dioen hipotesia. Arrasatekoa, hain zuzen ere, Ber- garakoa bezala, HBren eskuetan dago. Jokaldia hauxe litzateke: bestela zurriz oso zaila izango litzatekeen operazioa, egoera berriaren barruan Bergara eta Arrasateko alkatetzak eskuz alda- tuko litzuzkeen akordioa posible egin. Egun nahasiak etor dakizki- guke, bai horixe.

Joxe Aranzabal

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



Memesa

79 42 22

# Badatoz Zaitegi sariketak

Besteak beste, honako lehiaketa hauetan parte hartzeko aukera duzue guztiok: Ipuina, poesia, bertso-papera, argazkia, bideoa, komikia eta itzulpen laburrak.

Sariak, benetan tentagarriak: Ipuin, poesia eta bertso-paperean 50.000 pta. irabazleentzat; Komikian, 40.000 pta. Argazki onenari eta argazki-multzo onenari 30.000. Bideo irabazlearentzat 75.000.

Kasu guztietan, 15.000 pta. ko akzesitak emango dira.

Bestalde, itzulpen laburren sariketari dagokionez, aurtengo gaia "Soziolinguistika" izango dugu. 250.000 pta. irabazlearentzat eta 50.000ko akzesitak.

Lanak entregatzeko epea Aza-



roaren leian amaitzen da. Informazio gehiago nahi duenak, jo AEDra edo deitu 79 54 46 tfnora.

## Larunbatean, antzerkia

"Gasteiz" antzerki taldeak "Todas tenemos la misma historia" obra antzeztuko du larunbatean, 10,30etan, Amaia antzokian. Lana, Franca Rame eta Darfo Fok idatzia da; gaztelaniazko bertsoia Carla Matteinik.

Lau bakarraketak osatzen dute larunbateko antzezpena: "Monólogo de la puta en el manicomio", "La violación", "Yo, Ulrike, grito..." eta "Una madre" hain zuzen ere. Eszena guztiak Ana Lucía Billate Ozaetak egiten ditu; gizonetzko pertsonaia, berriz, Javier Sáez de la Fuentek. Zuzendaria, Carlos Gil Zamora.

Aukera ona, ohizkoa ez den antzerkia ikusteko.



## Juan Jose Altuna

Hil honetan zehar, Oñatiko Etxe Aundin Juan Jose Altuna Alkizu margolariaren obrak izango ditugu ikusgai.

Juan Jose arrasatearra da. 1977tik aurrera makina bat lehiaketa eta sari ezberdin irabazi ditu, bai estudio eta bai aire zabalean. Gaztea dela kontutan izanda, oraindik ere badu aukera lan biribilak burutzeko.

Azken ordukoak, Oñatin aurkeztu ditu.



### Anboto

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK  
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian

Propietate inmobiliarioaren agenteak, inmobiliaria honetan egindako salmenta eta kontratuak garantizatzen dira.

FIDA ZAITEZ

Iturriotz kalea 11, Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

## BRANKA JATETXEA

Eguneko menua  
eta karta

Zarugalde 1, Tfnoa 79 60 10

## Maiatz

ILEAPAINDEGIA  
mixtoa

Elkano 38, (Musakola)  
Tfnoa: 79 58 78  
ARRASATE



## Garibai etxea


**A**rrasateko Udalak, urriaren 2an egindako Gobernu-batzordean Garibai Etxea berritzeko proiektuaren obrak "Construcciones Irurok" enpresari adjudikatzea erabaki zuen. Obraren aurrekontua, bestalde, 5.695.962 pta.koa da. Biteri kaleko etxe berriaren proiektua, Alberto Mendieta Sagasta eta Miguel M<sup>e</sup> Lasa Iturbe arkitektoek

egin dute. Asmoa, etxearen itxura zeharo aldatzea, bai barrutik eta bai kanpotik. Behin egitasmoa amaitu eta gero, Gazteria Batzordeak erabiliko du Garibai etxea, bertan Gazteentzako Informazio Bulegoa kokatuko delarik.

Kanpokaldean, garbitze eta margotze lanak egingo dira. Sarrerako atea aldatu egingo dute, eta baita balkoiaren itxura ere. Aldaketa garrantzitsuenak, barrukaldean. Gela

banaketa berria, argiteria sistima, eskaileren berriztapena, margotze lanak, telefono instalatzea... eta beste hainbat abantaila ere.

Gaur egun bezala, gero ere bi solairu izango ditu Garibai Etxeak. Biak ere espazio bakarrekoak. Behekoan, publikoarentzat zerbitzu ezberdinak; goikoan, bilerak egiteko gunea. Sinatu den kontratuaren arauera, egitasmoak bi hilabetetan amaitua beharko du egon.



**I. C. Elektro Leniz**

- \* *Industri eta etxeetako instalazio eta mantenimendu elektrikoak.*
- \* *Gas natural, gasolio eta elektrizitate bidezko berokuntzak etab. Elpan, Wampan erredagi bidezko sistema; obrarik gabe.*
- \* *Airea klimatizatu, garbitu eta girotu.*

Industrialdea, B-5 Tfnoa: 79 03 03 ARETXABALETA  
79 05 18 ARRASATE

**Obea**

**Ate automatikoen  
ezarpena  
Konponketak  
Berriztapenak**

**Galdetu prezioak**

**IGONGAILUEN  
MANTENIMENDUA**

Jose Luis Iñarra, 22-behea  
Tfnoa: 79 12 08



## Arrasate Telebista aurrera

### Gobernu Batzordeak partidarik inportateenak onartu

Joan den asteleheneko Gobernu Batzordeak Arrasate Telebistaren iharduerarako ezinbestekoak ziren bi partida onartu zituen. Batetik Metalurgicari joango den lokalaren egokitzapenerako 6.300.000 pta. eta behar den tresneria (kamarak, nahasgailuak, editaiarako aparailuak...) erosteko 7.000.000 pta.

Telebistaren egoitza egokitzeko hilabete t'erdi beharko da. Arrasatek, bestalde, baditu orografia dela bide, zenbait oztupo seinalea igor-

tzeko orduan. Arduradunek garbi daukate ez dutela edonola irten nahi. Guzti horrek denbora eskatuko du. Arrasate Telebista etorri badator, baina bere martxan.

Telebistarako hartutako lau langileak ez daude hala ere egonean. Urriaren batean lanean hasi ziren, geroko artxiborako irudiak filmatzen. Arrasateko bazter, kale eta txoko guztiak ari dira grabatzen, Eskoriatzako Irakasle Eskolakoek utzitako ekipari esker.

### 41 Etxebizitza

Hasieran 37 baziren Arrasaten eraiki behar ziren babes ofizialeko etxebizitzak, azken orduan 41 izango dira Altamiran egingo direnak. Gauzak horrela, hilabetez luzatu dute izen emateko epea.

Salneurriak, 2.679.114 eta 4.270.585 pta. artekoak dira, etxebizitza mota ezberdinak daudela kontutan izanik.

Foru Aldundiak eta Arrasateko Udalak % 50a (hau da, 20 etxebizitza) eskuratzeko aukera badute ere, badirudi azkenean ez dutela eskubide hori erabiliko. Beraz, 41 etxebizitzak saldu egingo dira.

Informazio gehiago nahi duzuenok, Iturbide egoitzan Gizarte laguntzailea duzue gai honen arduradun, 79 72 11 telefonoan.

#### Jaiotzak

Rua Sánchez *David*  
urriaren 8an  
Agirre Rabanal *Xabier* 9an  
Gantxegi Idigoras *Aintzane* 12an  
Larrea Barquero *Mikel* 15ean.

#### Ezkontzak

*Luis M. Alberdi Arando & Julia Jorge Romero.*  
urriaren 12an.  
*Miguel Angel Mancebo De La Varga & M. Antonia Fortuna Tena.*  
urriaren 14an.



comercial  
SUMOFIC, S.A.

### ZERBITZU INFORMATIKOAK

**ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK,  
STANDARak ETA NEURRIRA.**

**DATU-BASEAK  
OFIMATIKA  
MANTENU-ZERBITZUA**  
\*Ekipamendu eta programak  
\*Telemandua

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR



## Euskara jalgi hadi EPPra

### Eskolak 60 unitate didaktiko euskaratuko

Lanbide Heziketako ikasleen eskakizunei eta irakasle zenbaiten ardurari erantzun nahiz, Jose Maria Arizmendiarieta Eskola Politeknikoak maila guztietan euskaraz ikastea posible egingo duen egitasmoa jarri du martxan.

Lanbide Heziketa, Batxilergo Teknologikoa eta Injinerutzari dagozkien 60 unitate didaktiko euskaratuko dira. Ikastunitate hauek Marrazkigintza, Teknologia Mekanikoa, Elektrizitatea eta Elektronika-ren eremuetan sartzen dira. Joseba Etxebarria irakasle durangarrak har-

tuko du egitasmo honen ardura, horretarako Elhuyar zientzia taldearen laguntza izango duelarik.

Ikastunitate hauek datozen hiru urteetan argitaratu nahi dira, beti ere inguruko ikastetxeekin bat etorri eta gero, tiradari dagokionez. Gaur egun Batxilergo Orokorrean hiru dira dena euskaraz ikasten ari diren taldeak, Batxilergo Teknologikoan hiru, Heziketa Teknikoan lau eta Injinerutzan 90 ikaslez osatutako taldea. Orain Injinerutzaren bigarren kurtsoko testuliburuak ari dira euskaratzen.

#### ■ Koartela hutsik

Astearte arratsalde, Aretxabale-tako Goardia Zibilaren koartela hutsik gelditu zen; ondorioz, gure bailaran Oñatiko koartelak bakarrik iraungo du zutik aurrerantzean. Aretxabaletan behintzat, batek baino gehiagok txanpainaz eta etxaleroak jaurtiz osatu zuen berria.

#### ■ Eroskiren Gasolindegia

Eroskik, Musakola auzoan gasolindegia eraikitzeko dauden posibilitateei buruzko informazioa eskatu zion Udalari. Asteleheneko Gobernu Batzordean, ordea, ez zioten erantzunik eman. Oraingo, hor gelditu da kontua.

#### ■ Udalak, diru laguntzak

4 milioi San Frantzizko Xabier Ikastolari, patio estaliko obretarako. 2.200.000 pta. Eskola Politeknikoari, Injinerutzako obragatik.

500.000 pta. Psikopedagogi zen-truari, beka eman ditzan.

#### ■ AEDren Batzar Orokorra

Urriaren 31an asteartez egingo da, Monterronen arratsaldeko 7etan. Bertan ikutuko diren gaiak: 88-89 kurtsoko balantzea, 89-90rako ildo nagusiak, estatutuen aldaketa, egoera ekonomikoa etab.

Guzti horren ondoren, afari ederra egingo da.

comercial  
SUMOFIC, S.A.

### PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,  
FOTOKOPIAGAILU,  
TELEFAX,  
etab. etan.  
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**



## Jaurlaritza auzo elkarteen alde

### Hodibakarreko gas instalazioak ipintzeko aukera

Naturgas enpresaren eta Auzo Elkarteen arteko eztabaida aspaldi-ko kontua da. Gas zerbitzua zabal-tzen hasi zenetik, salneurri ezberdi-nak ezarri nahi izan ditu bakoitzak. Naturgasek, noski, D-1 tarifa, gares-tiena. Auzo Elkarteek berriz D-3a, aurrekoarekin konparatuz % 55aren aurrezpena suposatzen duena.

Horrela, orain gutxi bildu ziren Gasteizen Eusko Jaurlaritza eta Au-zo Elkarteetako ordezkariak. Xabier Zubizarreta ere bertan egon zen.

Mahai gainean, hodibakarreko

edo hodi-anitzeko kokapenak egite-ko posibilitatea lortzea. Auzo Elkar-tekoek beren arrazoiak eman zituz-ten, eta De Miguelek (energi sailbu-ruordeak), 48 orduetan erantzuna ematekotan gelditu zen.


Azkenean Jaurlaritzak Auzo El-karteei eman die arrazoiak. Bai esteti-koki eta bai ekonomikoki, hodibaka-rreko instalazioak gomendagarriak direla erabaki dute. Hemendik au-rrera, beraz, Naturgas enpresak be-zeroei eman beharko die bata edo bestea aukeratzeko posibilitatea.

## Galarta Gasteizen

Julio Galarta pintore arrasatea-rra Gasteizen ari da bere obra erakusten. Arabako Kutxak Inde-pendentsia kalean duen erakuske-ta-aretoan.

Oraingoan gure artistak 45 pintura eraman ditu Arabako hiri-burura, gure inguruetakoa paisaiak gehienak. Lau bodegoi ere sartu ditu tartean.

Erakusketa hil honen hamai-kan ireki zen, hogeitabita arte, da-torren igandera arte, beraz. Orain-goz jende dexente hurbildu da lanok ikustera. Aitzakiaren bila bazabiltzate Gasteizera joateko, hauxe duzue aproposa.



## X. GOROSARRI eta M. L. TROJAOLA

**ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK**

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

### **BIZKARREZURTERAPIA**

Erreumatismo handigarriak (erreuma-artritis, espondiloartritis, lupusa, hezueria...) Hezurretako gaixotasunak (Osteroporosia, osteomalacia, pagets) Artrosia, lumbagoeriak, ziatikak, garondoeria, etab...

### **KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU**

San Vicente Ferrer 4 etxebehea. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67  
San Jose Policlinica. GASTEIZ Tfnoa: 945-14 09 00

**ENARA**  
OSAGARRIAK

Maalako Errabala 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32



**KAJOI TABERNA**


**erdiko kale 22**  
**Tfnoa: 79 32 27**

# Euskaltegiak abaila bizian

## Bataz beste iazko ikasle kopurua gure bailaran

Deba Garaiko euskaltegi gehienek atek irailaren 18an ireki bazituzten ere, urriaren lehen astera arte gorabehera handirekin ibili dira, taldeak osatu ezinik, jende asko berandu etorri bait da izena ematera.

Urriaren hamaikarako matrikula guztien fitxak HABEren Donostiako Ikuskatzaitzara eraman behar izan zituzten. Beheko taulan datu horien berri ematen dizuegu. HABEkoen eritziz, bataz beste, gure bailarak eutsi egin die iazko kopuruei. Oso inportantetzat jotzen zuten hasi berrien kopurua, 59 Arrasaten, 33 Aretxabaletan, 21 Oñatin... Urte batetik bestera taldeek duten jarraipena ere aipatzen zuten. Azpimarragarria baita, EGA eta Alfabetatze taldeen beherakada. Hutsune hau bete nahian, hain zuzen, hamar egun



barru Alfabetatze kanpaina bati ekingo zaio gure bailaran.

### ■ Jon Juaristi Kerejeta ehiza istripuz hil

Jon Juaristi, 37 urtekoa, Gatzaga inguruko Jarindo mendian hil zen asteazken goizeko bederatzia al-dean. Istripuz, bere eskopetak tiro egin zion. Segituan eraman zuten Gasteizko Santiago Ospitalera, baina tamalez hilda heldu zen bertara.

Jon Juaristi San Juan auzoan bizi zen, eta Ulgorren egiten zuen lan.

### ■ San Viator eguna

Urriaren 20an, urtero bezala San Viator eguna ospatu da. Kirol-ekitaldiak, antzerkia, bertsolaritza saioak... eta ondorengo sari-banaketa. Seguraski ikasten baino gustorago emango zuten eguna neska-mutikoek.

### ■ Umezaintzaren anagrama

Josu Alaba suertatu da, irabazle Umezaintzak antolatutako anagrama lehiaketan. Berarentzat 50.000 pta.ko saria. Gainontzeko partehartzaileak aurkeztutako lanak jasotzera pasa daitezke, hala nahi izanez gero.

### ■ Parrokoaren eskaria

Joan zen kurtsoan, bi neskak parrokiako artxiboa erabiltzea eskatu zuten. Horrela, karpeta bat eman zitzaaien Jose Letona, Jose M. Uranga... etab.ekin eginiko lanekin. Eraman bai, baina oraindik ere ez dute itzuli. Artxihoak guztionak dira, eta mesedez eskatzen zaie bere jatorrirra bueltatzea.

Euskaltegiak	Ikasleak		Irakasleak	Ikastorduak
	iaz	aurten	aurten	astean
Arrasateko Udal Euskalt.	190	285 *	10	240
Erdu AEK Arrasate	228	103	8	92,5
Aretxabaletako Udal Euskalt.	114	107	6	110
Oñatiko Udal Euskalt.	89	76	4	70
Bergarako Udal Euskalt.	138	145	8	125
Erdu AEK Bergara	54	50	3	45

\* Talde bat sortzeke.



**Jatetxea**  
**GATZAGA**

**Arrasateko**  
**jatetxea**  
Olarte kantoia 3,  
Tfnoa: 79 84 53

**“ PAL ”**

burdindegia, brikolage  
eta  
tresneria

Uribarri etorbidea 3  
Tfnoa 79 31 99

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Arrasate pasealekua 3 Bis behea. -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

**ARRASATE**  
**PRESS**

astero zuekin

# botu saltsa

- Hautagaien zerrendei errepa-soa emanez, hara non arrasatear bat agertzen den LKiren Kongresurako zerrendan, Juan Ramon Garai, 5. lekuan, hain zuzen. Bederatzi hautagai esan genuenean, bada, hamar idatzi behar oraingoan. Bakoitzari berea.

- Oñatiko EEkoak sutan daude inkontrolatu batzuk haien publizitate politikoa apurtzen ari direlako. Prentsan ohar bat banatu zuten ekintza horiek salatuz. Zenbait egunkaritan iragarki moduan ere atera zuten adierazpen hori.

- Ez zitekeen bestela izan, nonbait. Eurohauteskundeetan HBren sigla erraldoiak agertu ziren Kurtzetxikin, Mondragoeko hainbat tokitatik ederto ikus-teko moduan. Hauteskundeak joan ziren baina letrak ez, gaur arte. Beno, ba orain EAKoek beste horrenbeste egin dute Bergaran. Martxa honetan perretxikoak ahaztu eta sigla bila iten beharko dugu mendira.

- EMKkoek ere, oraingo honetan LKikoen laguntzaz, beste behin jo dute bete-betean, pil-pilean dagoen Pazzmanen kartelarekin. Denetariko iradokizunak, nola ez: Onenak direla, bai, baina konpromezurik ez dutelako, argazki muntaiak zoragariak direla, baina testuetan eskua joan zaiela, zein onak diren, baina horrela edonor. En fin, denetarik, botikan bezala.

# T x a n d a k a

## Ernalkuntza artifiziala

1988ko azaroaren 24eko E.A.O.ean, Ernalkuntza Artifizialaren teknikak arautzen dituen Lege berria argitaratu zen.

Nazioarte mailan gai honen inguruko legeak sortzean zuhurtziaz dihardutelarik, lege berri hau aitzindaria da, beste herrialdeetan oraindik ere gaia arautuko duen testua nolakoa izango den ikertzen ari bait dira. Kontua ez da erraza eta sor daitezkeen arazoez gizarte mailan ere eragin handia izan dezakete. Horregatik, komenigarria da arazoa ikuspegi guztietatik aztertzea.

Hasteko, eta testuaren zergatia azaldu asmoz, gogora dezagun ama izatea aukera dela, eta ez obligazioa; emakumeak emakume izaten jarraituko duela semerik izan edo ez. Bestalde, birsortzapen artifizialaz baliatzeko zenbaterainoko eskaria dagoen jakin nahi badugu, alde batera utzi beharko dugu orain arteko izkutuko presio iraunkor eta itogarria, feminitatea birsorkuntzarekin lotzeko joera.

Emakumeok aske baldin bagara, eskubide berekoak, nahi dugun guztia egiteko aukeradunak... ez dago ulertzerik legearen gudanako jarrera, legegintzaren bilakaeran atzerakada adierazten bait du.

Teknika guzti horiek, errazenetik hasi (ernalkuntza artifiziala) eta konplexuenera (In Vitro ernalkuntza enbrioi aldaketa eta guzti) emakumeen gorputzarengan erabiliko badira ere, legegileak ez du emakumeen osasun fisiko nahiz



Maria Jose Varela \*

psikikoa babesteko arreta berezirik agertu, ez eta emakumeen gorputzen manipulazio eta komertzializazioa gaitzestekorik ere, kontutan izanik diru eta lanbideari begira, maila apalenetako jendea izaten dela.

Bestetik, Konstituzioaren oinarriak ahaz-

tu egin dituztela esan liteke, bitzitza egoeran oinarrituta, diskriminazioak sortu bait dituzte. Ondorioz, emakumeak ezin izango die teknologia hauei baiezkota eman ezkontuta baldin badago, senarraren oneritzia behar izango bait du.

(...)Kode penalak, umekia nahita desegitea orain zigortzen badu, lege berriaren arabera 14. egunetik aurrera desegitea beti zigortuko da.

Seme-alabak sailkatzean, mota berri bat izango dela jakitea ere garrantzi handikoa da: "Post-mortem" izenekoak, hau da, aita hil ondoren material genetikoa umetikian egon gabe ere sortutako seme-alabak. Kasu horretan, aitak testamentu edo idazki publikoan baiezkorik eman ez balu eta ernaldia aita hil ondorengo sei hilabeteetan burutzen (bukatu) ez bada, semeek ez lukete oinordekoen eskubiderik izango.

Bukatzeko, azpimarragarria da teknika hauei esker injinerutza genetikoa atek zabalik izanik, beharrezko tekniken kontrola eta garrantia mantentzea zaila dela, Sanitatearen legeak ezartzen duen isunik handiena 100 milioikoa bait da.

(\* ) Abokatua

# MOTOR



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

**P-405 DIESEL eta  
TURBO-DIESEL  
INTERCOOLER BERRIA**

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75





**Bedoñako Elorrixa baserriko Alejandra Uribetxebarria eta Asensio Altuna orain dela 50 urte ezkondu ziren Goronaetako elizan, Pilarika egunean. Urrezko ezteiak urtero betetzen ez direnez, joan den larunbatean ospatu zituzten Bedoñako elkartean, Bihoakie gure zorionik beroena.**

## Izen propioak

■ **Alfonso Gorroñogoitia**, 64, hila-  
ren 25ean 65 urte beteko ditu eta  
31an jubilatu egingo da. Alfonso  
Kooperatibetako sortzaileetako bat  
dugu. Injinerutza industrialia egin eta  
gero 1960an LKAko Kontseilu Zu-  
zentaileko lehendakari hautatu zu-  
ten. 28 urte egin zituen kargu horre-  
tan, azken Martxora arte. Orain Eus-  
kadiko Lan Elkartuko Federazioaren  
lehendakari da lau urtetarako. Au-  
rrerantzean hor saiatuko da ge-  
hienbat.

■ **Mikel Piedehierro**, 36, errefu-  
xiatu musakolarra Paben atxilotu  
zuen Frantziako poliziak beste lau  
kiderekin batera. Askatu ondoren,  
Poitiers aldera bidali dute bizitzera.  
Aranzabalenean zebilen lanean,  
elektrizista. Orain 15 urte joan zela  
Iparraldera, non Telekoop enpresa  
sortu bait zuen. Mexicon eta  
Venezuelan egon ostean itzuli egin  
zen Iparraldera. Azken bi urtetan  
ezkutuan zebilen. Ezkondata dago  
eta sei urteko alaba du.

■ **Iñigo Idarreta**, 26, Bergarako  
Udal Pilotalekuaren gerente berria.  
Dagoeneko bi urte egin ditu, Jose M<sup>º</sup>  
Ugarte orain arteko gerenteari la-  
guntzen. Zuzenbidea ikasten ari da  
Donostiako Ibaetan, 4. kurtsoa.

■ **Jose Pedro Garcia**, 29, bilbota-  
rra izango da datorren astetik aurrera  
ONCE erakundearen ordezkaria  
Arrasaten. Jose Pedro itsua da eta  
dagoeneko 13 urte lanean dabilen  
Asunta Gofirekin egingo du lan  
ONCEk Aldai kalearen 8.an duen  
egoitzan.

**Axeritarren  
bilkura:** Irailaren  
23an Portaloian  
elkartu eta Herri-  
gain elkartean baz-  
kaltzeko bildu  
ziren aspaldiko  
partez, Axeri  
baserritik irtenda-  
ko Arregitarren  
lehengusu-lehen-  
gusinak. Bazkarira  
47 lagun joan  
ziren, eta urtero  
elkartzekotan  
gelditu.



Ostiral eguerdian,  
ordubata t'erdietan,  
Xabier Zubizarretak  
**Pio Azkarate** eta  
**Marije Arrizabalaga**  
ezkondu zituen.  
Senar-emazte berriak  
ez ziren eleizatik  
pasa. Dagoeneko, Fiji  
irletara irtenak dira  
Eztai-bidaian.  
Zorionak!



## ANDERE

*Bainu eta  
sukaldeko*  
**ALTZARIAK**

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

\*Sukaldeko altzariak neurritan egin eta ezarri.

\*Lehen mailako elektretresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurritan ezartzekoak.

\*Egituraketa proiektuak konpromezurik gabe.

\*Diseinu altzarietan trebatuak gara.

## TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8  
**ARRASATE**

# Lehen mailako Asistentzi Zentrua

## Drogari aurre egiteko zenbait arrasatearren asmoa

*Droga hitzak askori gaisotasuna, marginazioa, atxiloketak eta horrelako definizio edota irudiak dakartzkio gogora. Oro har arazotzat har genezake. Hala ere, zenbait arazoren aurrean neurriak hartzen diren bitartean, honen aurrean orain arte behintzat ezer gutxi egin izan da. Zenbait arrasatearrek, gai honek herrian duen hedapenaz ahartuta, apiriletik aurrera lanean dihardu, drogaren eragina sofritzen duten gazteentzat "Lehen mailako Asistentzi Zentrua" herrian sortu nahian.*



Honako hauek ditugu proiektuaren bultzatzaile

### Taldearen nondik norakoak

"Gizakia helburu" erakunde-koek, apirilean drogomenpekotasunaren inguruko hitzaldia eskaini zuten herrian, arrasatearrok, gai honen inguruan kontzientziatzeko eta bide batez, lan egiteko prest egon zitezkeen pertsonak elkartu eta lanean jartzeko. Hitzaldi haren ondorioz, hamabi pertsona astero astero elkartu izan da, egin zitekeena aztertu eta aukera zehatza kaleratzeko. Taldean, drogazale ohi batek, zenbait drogazalaren gurasoek eta languntzeko prest dauden zenbait pertsonak hartzen dute parte. San Andres auzoko parrokiari ari dira lanean.

Beraiek aitortu digutenez, gauza ugari egin daiteke, baina gaiak herrian duen hedapen handia ikusirik eta dagoen informazio eskasari nola-baiteko aterabidea eskaintzeko

"Lehen mailako Asistentzi Zentrua" sortzea pentsatu dute, Eibarko Udalak martxan jarri duen proiektua bereganatuz.

### Uste baino arazo larriagoa

Herrian drogaren hedapena zenbaterainokoa den kontura gaitezen,

## Edozein asteburutan, Arrasaten, goardiako farmaziek eguneko 50-60 xiringa saltzen dute

edozein asteburutan, goardiako farmaziek eguneko 50-60 xiringa saltzen dutela edota drogaren eraginez aurten dagoeneko bost gazte hil direla aipatuko dugu.

Taldekideek, arazo honen aurrean, jendearen sentiberatasun eza salatu digute. Arazoa beren etxeetan jasaten ez dutenek, bizkarra eman

eta mespretxua azaltzen omen dute, askotan herrian gertatzen diren lapurreta etab.en erru osoa drogazaleei leporatzen zaielarik.

Bestalde, drogaren arazoa beren etxeetan bizi duten familiek, ezkutu, inori horren berri eman barik ahalegintzen dira arazoari konponbidea aurkitzen, besteek zer esango ote duten beldur. Familia hauek, bakardadea, etsipena eta lagunkidetasun eza sofritzen dute.

Honez gain, kontutan hartzekoa da, drogomenpekotasuna pairatzen duen pertsonak, drogari uztea erabakitzen duen une berean jende adituaren laguntza beharrezkoa dela. Inolako laguntzarik, edota sendabide egokirik gabe, ez bait du lortuko drogari uztea.


### Informazio eskasa edo eza

Herrian drogomenpekotasuna sendatzeko dauden erakunde edota elkarteei buruz dagoen informazio eskasaz kontura gaitezen, taldeko emakume batek ondokoa azaldu digu. "Nik neure familian bizi izan nuen Arrasaten dagoen informazio eskasaren eragina. Senitarteko bat drogari uzteko laguntza eske hurbildu zitzaidan. Arazoa bertan egunean konpondu beharrekoa zela ohartu nintzen eta berehala hasi nintzen hara eta hona deitzen."

*pilula batzuk eman zizkidaten. Horrela hiru egun pasa genituen eta senideak egoera jasan ezinik, berriro ekin zion droga hartzeari.* Droga uzteko lehen urratsa ematea erabaki gogorra izanik, behin erabakia hartu ondoren, berehala hartu behar dira neurri egoki eta aproposak. *"Jende askok, nik droga uzteko programa egin dudala jakindaberen etxetara joan nadila eskatzen dit, beste inondik ez bait dute jasotzen informazio zehatzik"* azaltzen zuen Aitorrek.

### Zentruaren asmoa

Familia eta drogazaleei *Gizakia Helburu* programa terapeutikoarekin harremanetan jartzeko erraztasunak eskaintzea izango da zentru honen helburu nagusia, bertara hurbilduko diren gazteei informazio zehatza eta aditua eskaintzea alegia. Zerbitzu hau eskaini ahal izateko zentruak langilego berezitua beharko luke



Laguntza ezinbestekoa da drogari uzteko

bideari ekiteko.

Horretaz aparte, droga utzi nahi ez duten gazteen senitartekoei ere laguntza eskainiko lieke zentru honen. Familia ezberdinak harremanen

beregana dezla eskatuz.

### Udalak begi onez ikusi

Udalak iaz, herriko toxikomania arazoei irtenbidea aurkitzeko, giza-talde ezberdinek osatutako batzordea sortzeko asmoa azaldu zuen. Udalak aipaturiko batzordea martxan jarri ahal izateko, gizarte-laguntzaile bat kontratatu zuen. Gizarte-laguntzaile honek, batzordea sortzeaz gain arazoak herrian duen hedapenez datu zehatzak eskuratzeko ardura bereganatu zuen. Batzordea arazoei irtenbide egokia aurkitzeaz arduratu beharko litzateke. Edonola ere, batzordea sortzea ez da uste bezain erraza suertatu asmoa gauzatu gabe dagoelarik.

*"Lehen mailako Asistentzi Zentrua"* ren proiektua oso begi onez hartu dutela adierazi digute ongizarte zerbitzuan. Oso proiektu ona eta garatua izanda, gauza zehatz bat eginez, aipaturiko baizordea sortzeko bidea izan daiteke. Hala ere, gaia osasun-batzordean aztertzeke dago, zentrua martxan jartzeko zenbait arazo aurrikusten direlarik, hala nola, langilego berezitua, sikologo, etab.ak kontratatu beharra, egoitza... *"Hasierako Asistentzi Zentrua' aurten eratzea nahiko zail suertatuko da, aurrekontuak onarturik bait daude eta antola daitekeen zentruarentzat ez dago kontusailik eta pertsonala kontratzea ere ez delako erreza suertatuko. Gauzak aztertu eta datorren urtean baliteke zerbait egin ahal izatea."* adierazi digu Elenak, ongizarte zerbitzuko gizarte-laguntzaileak.

## Drogaren eraginez, aurten dagoeneko bost gazte hil dira gure herrian

izan eta bertan egun osoz lanean aritu. Zentruak gazteekin izango duen lehen harremanak, argigarri eta motibagarria beharko du izan, haien egoeraz jabetuz gauza serioren bat egiten has daitezen. Gazteek, behar besteko motibazioa izatean, *Gizakia Helburuk* dituen harrera zentroetara zuzenduko dituzte gazteak senda-

tan jarriko lituzke, talde terapiaren bidez beren bakardadea eta arazoak konpontzen laguntzeko.

Garbi ikus daitekeenez, guzti hau burutu ahal izateko dirua da beharrezko. Arrasatearro dagokigun arazoa izanez, Udalera zuzendu da taldea, beren proiektuaren nondik norakoak azalduz eta egitasmoa



**URONDO elektrizitatea.**

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismok
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

**AURRERATZEKO**

**SF**

**AIZKORA**

**AUTOZERBITZUA**

Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

# Arrasate 89

## LEHIAKETAK

BERTSO  
PAPERAK

IPUINA

POESIA

KOMIKIA

BIDEOA

ARGAZKIA

DIPTIKOAK ETA INFORMAZIOA

AEDn: Pablo Uranga 4, Behea. Tfnoa: 79 54 46

**SARI GARRANTZITSUAK  
ANIMATU ETA PARTE HARTU!!!**

Lanak aurkezteko epea: 1989ko azaroaren 1a

AEDk antolatuta Arrasateko Udalaren laguntzaz



# “Argazkigintzaren artisaua naiz”

## “Laso”, arrasatear gehienok erretratatu gaituen gizona

*Pedro Sologaietza, “Laso”, Arrasaten urte askotan izan den argazkilari bakarra dugu. Berak esaten duen bezala, 40 urtetik gorako arrasatear guztiei aterako zien berak noizbait argazkia. Beste garai bateko argazkilaria, teknika honek izan duen garapen izugarria ezagutu du, bere burua argazkilaritzaren artisautzat definitzen badu ere.*

— *Nola sartu zinen argazkilaritza munduan?*

— Ni eta beste lagun bat, mendira joaten ginen asko, elgoibartar, eibartar, etab.ekin joaten ginen, koadrilan. Kamara kaskarra geneukan, argazkiak atera eta diru apurren baten truke emanez, poltsikorako diru piska bat ateratzen genuen, tabakotarako eta. Horrek argazki denda jartzeko ideia eman zigun. Lanean Cerrajeran genbiltzan eta nik lana utzi, Donostian ikastaro batzuk egin eta halaxe hasi ginen. Garai hartan Arrasaten argazkilari bakarra zegoen, nahiko edadekoa eta eremu handia zegoen. Ordura arte kristalezko plakekin lan egiten zen, baina gu lanean hasi ginen garaian formato berria kaleratu zen, 24x36 formatoa. Afizionatuen artean ez zegoen argazkimakinarik, eta guk futbol ekipoari argazkiak ateratzen genizkion, San Juanetan... Industria garatzen hasi zen eta katalogoak egiten hasi ginen. Lana gura adina zegoen eta langile gutxi horretarako. Suertea izan genuen, gaurkoaren aldrebe-sa.

— *Eta “Laso” izena nondik nora dator?*

— Nire lehen deitura Sologaietza da eta nire lagunarena Lasagabaster, hortik dator Laso izena. Lanean aritu ginen lehen urteak oso gogorak izan ziren, gorriak ikusi

genituen. Lanak ez zuen biontzat ematen eta nirekin lanean hasitakoak lantegian segitzen zuenez, banandu egin ginen. Lagun batek Ferrerrias kalean lokala utzi zidan musu truke eta hantxe egin nituen bi edo hiru urte. Nortasun agirientzako argazkiak egiten garai hartan hasi ginen.

— *Argazkiak zuribeltzean edota koloretan?*

— Ni artisaua naiz. Gure denboran ez zegoen gaurko automatismorik eta koloreak guretzat debekatuta zeuden. Gu hasi eta hamarren bat urtetara diapositibak eta, koloretan hasi ziren baina oso garestia zen. Nik neuk zuribeltz kolorea baino

nahiago dut, bizi osoa horretan pasa dut eta. Azkenengo hamar urteak koloretan baina beti inork eginda, aritu nintzen. Koloretako argazkiak norberak errebelatu ahal izateko ziurtatuta izan behar zen eguneko karrete kopurua eta ezinezkoa zen.

— *Argazki bakoitzak errebelatu berezia behar al du?*

— Gu hasi ginenetik gerora errebelatu sistema oso aldatu zen. Koloreak sekreto antze-



Pedro Sologaietza, “Laso”

koak ziren eta gauza ugari atzera geratu zen. Goizeko bederatzieta sartu eta gaur arte kuarto ilunean egotea aspaldiko kontua da. Nik ordu ugari eman izan ditut kuarto ilunean argazkiak erretokutzen. Aurpegiak txukuntzen, etab. Gaur egun argazki guztiak makinan sartu eta denak batera errebelatzen dira. Asko txarto ate-

izanez gero, atzekoak desagertu arazi behar dira, atzekoak desenfokatu eta motiboari erliebea eman behar zaio. Ni hasi nintzen garaian fotometroa ojometroa zen, eguraldiaren mende ere bageunden eta argazki onak ateratzek gaur egun baino merito handiagoa zeukan. Edozelan ere, kamara garrantzitsua izan arren, norberaren gusto estetikoak ere garrantzitsua da.

— *Denda saldu egin zenuen, baina gaur egun ateratzen al duzu argazkirik?*

— Beno, hiru bat urte egon naiz argazkirik ateratzen ez nuela. Lanari utzi nionean, begi batez ez nuen ezer ikusten eta hau sendatu baino lehen bestea gaisotu zitzaidan. Zenbait operazio egin didate eta gaur egun nahiko ondo ikusten dut.

Urterourtero argazkilari talde batekin Ameriketara joaten naiz argazkiak ateratzera, eta guztiz ondo ikusten ez badut ere, kamara automatiko batekin gutxi-gorabehera motiboa zentratu eta listo. Dena dela, orain askoz hobeto ikusten dut.

“Enfokatu ona, zentratuta egotea eta motiboa aproposa izatea, argazki onaren oinarri dira”

ratzen dira edota ilun, edota oso argi. Askotan argazki bakoitzari nahikoa denbora emanez gero argazki horiek salba daitezke, baina gaur hori ez da egiten. Txarto ateratzen direnak ez dira kobratzen eta hor konpon.

— *Zer behar du argazki batek ona izateko?*

— Ondo enfokatuta egotea, zentratuta eta motiboa aukeratzea, gusto apurrea izatea argazkia ateratzekoan. Lehen plano atera nahi



Irabazleen taldea, dugu hau

## Donostian Maratoi ederra

### 16 arrasatear. Jausorok marka ikaragarria

Igande goizez 16 arrasatear aurkeztu ziren Donostiako Maratoian, hoietariko seik lehen aldiz korritzen zutelarik. Irabazleen markak oso onak izan baziren (gogoratu Jose Esteban Montielek, 2.10.50 denboraz Espainiako rekorda lortu zuela), gure mutilak ere ederto ibili zirela esan behar.

Aipatu ere beste arrasatear asko hurbildu zirela partaideak animatzen. Beraientzat txalo beroa.

Postuei eta markei dagokienez, hona hemen gure atletek egin zuten:

- 92. Jose Ramon Belastegi, 2. 39. 24.
- 145. Cesar Diez, 2. 45. 52
- 157. Luis Zabala, 2. 46. 54.

- 212. Luis M. Ugarte, 2. 51. 46.
- 213. Iosu Ugarte, 2. 51. 55.
- 243. P. Jose Belinchon, 2. 54. 34.
- 249. Ion Otero, 2. 55. 28.
- 260. Joseba Ugalde, 2. 56. 25.
- 330. Juan Jose Ansoategi, 2. 59. 39.
- 346. Bittor Amozarrain, 3. 00. 37.
- 363. Xabier Zubiaga, 3. 01. 56.
- 555. Jose M. Larrañaga, 3. 23. 12.
- 578. Jose M. Barrena, 3. 26. 40.
- 589. Juan Pablo Balerdi, 3. 28. 37.
- 598. Faustino Martinez, 3. 29. 26.
- 612. Xabier Errasti, 3. 31. 19.

Hauetaz aparte, aipatu beharra dago Ramon Jausoro atxabaltarraren denbora ikaragarria: 2. 19. 52-ko markaz zazpigarren postua lortu zuen. Gure zorionik beroena atleta bikain honi.

### Marino Fagorrera?

Bilbon emandako prentsaurrekoan, Marino Lejarretak Orbea-Danena taldea utziko duela adierazi zuen. Dena den, ez zaizkio datorren denboraldirako eskaintzak falta. Alde batetik *ONCE* eta *CARRERA* taldeak; bestetik *FAGOR*, Arrasate-ko ekipoa. Milioikada galantak jarri dizkiote guztiek mahai gainean; halere, Marinok berarekin eraman nahi ditu Jokin Mugika, Leclerq eta Hodges orainarteko taldekideak. *FAGOR*ren gelditzen bada, zalantza barik ongi-etorri beroa emango diogu zaletu guztio.

### Rugbya:

#### Laugarrenean bai

Azkenean lortu dute garaipena Arrasate Kirolak taldeko jokalariek. Laugarren ihardunaldian izan zen hori, Iturripen, Irungoen aurkako neurketan. Bukarera 27-9ko emaitzaz nagusitu ziren arrasatearrak. Aipatu behar, denbora asko lesionatuta egon ondoren, P. Gorosabelek jokatu zuela aspaldiko partez.

Seguraski partidu osteko zerbezak inoiz baino gustorago edan zituzten.



# Kabia

## Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

## KIROLDEGI

jatetxea  
Eguneroko menua  
eta karta

Musakola auzoa 79 82 31

podiuma

**Juan Luis Aranburuzabala  
futbola eta futbola**

Pertsona batzuk zeregin jakin bat betetzeko jaiok direla dirudi. Juan Luis ere horietakoa dugu. Nik uste jaio orduko baloia nahi bezala ibiltzen zuela hankatarlean.

Aspaldiko lehen ostikoak. *"Mutiko gehienak bezala, errekreoetan eta eskolatik irtendakoan beti futboleantzen nintzen."*

Beti futboleantzen, beti futboleantzen. Serioski emandako lehen urratsak Aretxabaletako UDAn, ezkerretarako aurrelari bezala. Teknika bikaineko jokalaria, laster heldu ziren Donostiatik bere bila. *"Hamazazpi urte nituenean Erreala etorri zen nerekin hitzegitera. Hurrengo denboraldian bertan haiekin joan nintzen, jubentzen mailako taldera"*.

"Pensión Alemana" eta Aldapetakoko garaiak ziren. Partidu ederrak jokatu zituen urte hartan, eta donostiarrek bi urteko kontratu berria luzatu zioten. *"Hasieran konfiantza handia nuen. Baina ezker aldeko aurrelari batentzat urte zailak tokatu zitzaizkidan parean. Ikusi bestela: Lopez Ufarte eta Txiki Errealean; Manu Urbieta eta Uria Sansen, nire aurretik."*

Kirolari dagokionez, badirudi orduan jo zuela gailurra. Sansen bi urte eman ondoren ez zuen lortu lehen taldera jauzi egitea. Donostiatik, Ondarruko Aurrerara. *"Gero Barakaldora beste urte batez, eta hirugarren bat Alavesen"*

Gasteiz aldean ez zitzaizkion gauzak ondo irten. *"Gainera ez genuen lortu gure helburua, mailaz*



Juan Luis Aranburuzabala

*igotzea, eta ez zidaten kontratua berriztu"*.

Arrasatekoa da; eta urte askotan futbol zelai anitz zapaldu ondoren, aurtengoan Atxabalpeko belarrean ohitu beharrean aurkitu da.

Hemezortzi urtekin promesa bihurtu ondoren, atzerako bidea egitea ez da erraza izan behar. *"Beno, oraindik hogeitalau urte ditut; eta zaila izango den arren, zerbait egiteko aukera ere gelditzen zait. Begira bestela Txosa, Arrasatera itzuli ondoren, berriz ere Eibar aldera deitu zuten. Batek daki"*.

Mondra taldearen inguruan itxaropen handiak sortu ziren hasieran; ihardunaldiak aurrera, hemezortzigarren postuan kokatuak ditugu gure jokalaria. Halako egoera baten topikoaz erantzun behar. *"Denboraldia hasi besterik ez dugu egin. Partidu asko falta dira, eta badugu astia gauza politen bat egiteko ere"*.

Emaitzak emaitza, seguraski batek baino gehiagok eskerrak eman-go ditu noizean-behin bere jokaldiak ikustean.

**Jipoi galanta saskibaloian**

*Arrasate Kirolak* saskibaloia taldeak ezin izan zuen aparteko gauzarik egin, asteburuan Donostiako *Muebles Martin* taldearen aurka jokaturako neurketan. Partidua 104-59ko emaitza esanguratsuz amaitu zen. Horrenbestez, gure jokalariek ez dute garaipenik lortu lehen bi ihardunaldietan. Larunbat honetan etxean jokatu beharreko neurketan izango dute aukera, Gasteiz taldearen aurka.

**Mondra, Mondra...**

Denboraldi hasieran itxaropentsu agertzen baziren ere, zazpigarren ihardunaldia eta gero, gauzak asko aldatu dira. Mondra 18. postuan dago. Azken neurketan Sodupe taldeak egin zion egitekoa: 0-1 irabazi zuten bizkaitarrek, 91. minutuan Gorkak penaltiz lortutako golari esker.

Igande honetan, Mungia alde-ra joango dira gure jokalaria. Irabazi ere, irabazi beharko dute noizbait. Animo!



**Denborapasen soluzioak**

**Euskal Herria ezagutzuz**

Gasteiz, Laudio, Amurrio, Agurain, Biasteri.

**Hitzegia lantzen**

Andaka=Talde edo multzoa



OKENDO

KIROLAK


Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda!

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

## Ostiralak 13, ordenadoreak izututa

Ostiralak 13 deituriko birus informatikoak ikara handia sortu zuen azken ostiralean, teorian behintzat, birusak egun honetan kutsatutako ordenadoreetako programak izorratu eta memorian gordetako ezabatu bait zezakeen. Edozelan ere, ez ziren bete birus honek sortutako itxarobideak eta usteak ustel bihurtu zirela esan behar.

Ostiralak 13 deituriko birusa, beste edozein ordenadore birus bezala, norbaitek ordenadoreetan kalteak egiteko sortutako programa dugu. Birus hau bereziki, Tel Aviv-eko institutu batean eta Kaos deituriko enpresa holandar batean sortua da. Teoria baten arabera ikasle palestindarrek Israeleko datu-baseak izorratzeko sortua da birus hau eta urteko edozein ostiral eta hamahiruan kalte egiteko programatuta dago. Egun hau herri anglosajoi



ustez zorte txarrekoa da. Birus honek, fitxeroak gizendu egiten ditu asetu arte, eta ondorioz ordenadoreetako sistema operatiboan gordetako datuak ezabatu egiten dira.

Sor zitzakeen kalte handiei nolabait aurre egiteko, birus honen aurkako sendagarri eta txerto ugari egin

da. Espainian, "Softwareetako elkarre espainiarrak" birus honi aurre egiteko 80.000 txerto banatu zituen doan.

Birus honek, PCak, IBMak edota MS-DOS sistema operatiboarekin bateragarriak diren ordenadoreei eragiten die. Espainian gutxi gora behera 450.000 ordenadore pertsonal dago, gehienak mota hauek ditugularik.

Ordenadore birusek, konputagailu piztuta egonez gero eragiten dute, hau da egun horretan ordenadore itzalita izanez gero, honek ez luke kalterik jasango. Hala ere, adituek aditzera eman dutenez, birus honek urte amaiera arte edozein egunetan eraso lezake, beraz txerto egokiaren bila dihardute enpresa handiek.

*Galileo Megatoi*

a.eme.interiores

GARIBAI 9  
20 500 ARRASATE  
(GIPUZKOA)  
Tlfnoa: 943-791503  
Telefax: 791489

barrukaldeko arkitektura  
etxeke ekipamendu osoa  
merkatal lokalen instalazioa

ARKITEKTO TEKNIKOA ETA APAINZAILE TITULATUAK DAUZKAGU



# Oskorri Hamaseigarrenean

**Oskorri. "Datorrena datorrela".  
Elkar**

Iazko "Hamabost urte eta gero hau" izeneko diska bikoitza, Oskorri urte luzez egindako lan mardularen bilduma izan zen. Denbora horretan, eta zailtasun ugari gaindituz, Oskorri euskal musika herrikoien berrikuntzarako oinarriak ezarri ditu, oraindik jorrazteko dauden hainbat bide urratuz. Harrigarria izan da nola erabili izan dituzten musika-egitura jatorrizkoak, berriekin nahastuz eta gaurkotasun osoa daukatela erakutsiz. Aipagarriak, era berean, lortu duten estilo ezaguna eta diskoetan nahiz zuzenean erakusten duten heldutasun profesionala.

Hamabost urte eta ia beste horrenbeste diskoren ondoren datorren hau Oskorriren disko bat gehiago da. Beraiena izanik ona, oso ona. Eta aldi berean jakina, sorpresarik



gabea. Oso gustokoa dut "Negu minean", Anttonek diska bakoitzearako prestatzen duen ohizko balada hunkigarria. Baita "Ez zaitez joan oraindik" kantua ere, non Natxok Itxaro Bordaren olerki eder bati doinu sarkorra maisutasunez ezarri bait dion. Bixenteren lana, ugaria diskoan zehar, oso ona da "Aizkorriko lamia" kantuan, baina motelagoa "Zalaparta" izenekoan. Fran da, nire ustez, lau konposatzaileen arteko ahulena eta kantaririk arruntena, nahiz eta disko honetarako egin duen "Arin reggae" de-

lakoak baduen interesik. Doinuak janzen dituen musika ona da, Oskorriren betiko moldeetan. Panderoa reggae erritmoari egokitzearen aurkikuntza izan ezik, ez dago diska honetan 84.eko "Plazarik plaza" zoragarrian zegoen aurrerakada nabaria. Oskorri disko harekin jo zuen gailurra eta, behera egin ez badu ere, ez dut uste geroztik maila hura gainditu duenik.

Dena den, hamaseigarren urteko disko honek Oskorri indartsu eta indarrean dagoela erakusten du. Eutsi goiari, mutilak!

## Laboarena labean

Irratiz apur batzuk aurreratu badi-tuzte ere, Laboaren diska berria ez da oraindik dendetara iritsi. Badirudi jazzaren kutsua nabaria dela oraingo honetan. Mikel zaharra beti esperimentutan!

Mikel Irizar

amuebladora



mondragonesa

**Zabalik gaude!!  
Erakusketa berria  
Santamainan**

**Diru asko ala gutxi,  
ez ondotik pasa,  
ez begiak itxi.  
Sartu, ikusi...  
eta komeni bazaizu erosi**

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Fax: 791489 ARRASATE

# Integrazioa

Orain dela sei edo zazpi urte hasi ginen hitz hau entzuten: prentsan, irratian, guraso-bileretan...

Integratu, integrazioa... zer ote da?

Hiztegian agertzen den bezala, integrazioa "izaera ezberdina dutenen bateraketa da".

Gai eztabaidagarri honen aurrean, guk hainbat erreflexio-galdera botako dugu:

— 1982an "Hezkuntza Bereziko Plana" argitaratu zen, eta funtsean, integrazioa dela eta, zera dio:

Haur guztiek heziketa egokia jasotzeko eta O.H.O.ko Eskolan integratzeko eskubide osoa daukate.

— Integrazioa (eskolan integratzea) ez da haur guztiak tratamendu berdina jasotzea, baizik eta bereziki bakoitzaren ahalmenaren arabera jokatzeko eta ikaskuntza prozesu egokia planifikatzea bakoitzarentzat.

Eskolako taldeak homogeenok direla pentsatu arren, hau ez da inoiz gertatzen; beraz Eskolak egoera ezberdinei erantzun behar die.

Erantzun hau, kasuan kasuan, era desberdinetan planteatu daiteke: O.H.Oko gelan edo ez, jornada osoz edo ez, etab.

— Haurrek dauzkaten beharrak ez dira bakarrik akademikoak.

— Hezkuntza Administrazioak, hezitzaileei lana posibilitatzeko, neurri zehatz eta planifikatuak bultzatu behar ditu: formazioa, haurkopuru egokia, aholkulariak, etab.

— Gurasok kalitatezko hezkuntza nahi dute. Beraz, gelan laguntza handia behar duen haurren bat baldin badago, kondizio egokiak eskatzeko eskubide osoa daukate.

— Integrazioak aldaketa metodologiko interesgarria ekar dezake; gelaren eta lanaren antolaketa aldatu eta egokitu egin behar bait dira.

— Eskolan, laguntza handia behar duten haurrek estimulu oso aberatsak jaso ditzakete besteengandik.

Giroa zenbat eta estimulagarriagoa izan, hainbat eta aberatsagoa izango da haurren garapena arlo desberdinetan: intelektual, afektibo, sozial, etab. etan.

Bestalde, maila intelektual normala daukaten haurrek bizitzan hain garrantzizkoak izango diren jarrerak jaso ditzakete: afektibitatea, kooperazioa, atentzioa, irekitasuna...

— Hor daude ere, Hezkuntza Bereziko Eskolak eta oraindik seguraski funtzio garrantzitsua bete beharko dute:

laguntza, espezialisten babesa, haur batzuen hezkuntza, etab.

— Bukatzeko, Eskolako integrazioa nahiz eta garrantzizkoa izan, ez dela nahikoa esan daiteke.



*Klarion Taldea*

## LENIZ

### AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldar, 9-Tel. 79.46.04

ESKORIATZA-Arana, 13-Tel. 79.36.59



Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta  
Ferrerías, 23  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

## J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

## A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



# EAJ-PNV GARAIA DA



*EAJ-PNV-tik Kongresurako zerrendaburua ANTON MARKET, ARDANZA Lehendakaria  
eta XABIER ARZALLUZekin*

# MINTEGIA

Gaia: **HERRIALDE SOZIALISTEN EGOERA**

- \* Nazionalitateak
- \* Merkatu plangintza
- \* Partaidetasuna

Hasiera eguna: **Urriaren 23an, astelehena.. 7etan AED Elkartearen lokalean**

**INTERESATUTA ZAUDETENOK,  
HERRI SOZIALISTARA BIDAIATU DUZUENOK ELKAR  
ANIMATU ETA ETORRI!**



**GIPUZKOA**

**HERRI Irratia**

# Loditasuna (VI)

Hor uzten ditugu Itziar eta Endika etxean beren argaltzeko lanarekin, eta loditasunaren gaiarekin jarraituz, bere maiztasunarengatik eta osasunean dituen ondorioengatik interes haundikoa bestalde, ikus dezagun Arrasateko gaztetxoak nola dauden loditasun aldetik.

Gaztaroa (adoleszentarora) biziaren aldi garrantzitsua dela izan behar da kontutan, hormonon aldaketak gertatzen direlako eta horrela gorputzaren konstituzioa beste itxura bat hartuz doalako.

Epe honetan, 10 urtetik 20 urte bitarte horretan, heldutasun psikologikoa gertatzen da, osasunarekiko ohitura onak edo txarrak finkatzen direlarik.

Gaurkoan ikerturiko 900 gaztetxoengan "mitxelinak" eta pisua nola dauden ikusiko dugu, eta hemen ditugun emaitzak adin honetako beste jendeentzat baliogarriak

direla esan genezake.


Orain, gogaikarria eta luzea delako argituko ez ditugun neurketa eta tekniken bitartez, ikusiko dugu pertsona baten pisua lau taldetan (konpartimentutan) banatzen dela: gantzena, hezurrena, muskuluena eta gainontzekoa (barrenkiak, odola...) eta edozein pertsonaren pisua lau talde hauetan nola banatzen den jakin dezakegu. Guzti hau gaztetxo hauekin egin dugu eta orain argituko dizkizuegu lortutako emaitzak:

— Gizonezkoetan gantza taldearen batzbestekoa %13,64koa da; gehienak %10 eta %17,5 bitartean direlarik; emakumezkoak berriz, gantza gehiago dutela agertzen da, hauen erdia %15,23koa delarik; gehienak %12 eta %18,7 bitartean agertzen dira.

— Grafikoan ikus dezakezue nola gantza adinarekin batera igozdoan; gehikuntza hori 17 urtetik

gora haundiagoa dela agertzen da nesketan eta mutiletan berriz, 18 urtetik gora.

— Gauza bitxi bezala esango dugu gantzaren batzbestekoa mutil bakoitzarentzat 8 kilokoa dela eta 7,7 kilokoa neska bakoitzarentzat; hori horrela gertatzen da mutilek neskek baino pisu haundiago dutelako nahiz eta nesken gantzaren portzentaia haundiagoa izan. Ikerturiko 516 mutiletatik 49 dira %20 baino gantz gehiago dutenak eta 384 nesken artean 42 dira %20 hori gainditzen dutenak.



Eukeni eta Arantzeta

Remote Control Included with TX-850/TX-830

*Hau zer den jakitea nahi ba duzu etor zaitez gurera*

**Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE**

I  
R  
A  
T  
I

**Ferrerias kalea  
Tfnoa: 79 71 80**

CE

**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

**Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25**

M  
A


**ARENAZA**

**Altzariak  
Diseinua  
Apainketa**

**Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABALETA**

## Kuriositateak eraginda

Aurten ere, aurreko urte batzuetan lez eskaladako ikastaro batzuk antolatu ditu Besaide Mendizale Elkar-teak. Ekitaldi hauek hasi berri den jendearentzat antolatuak daude. Bagenekien non ziren eta kuriositateak eraginda sapatu goiz baten mobitu ginen beraiek zeuden lekuraino. Atxarteko haitzak. Kotxetik irten ahala aurrez aurrez genituen kanterako hormatik zintzilikaturik gure lagun ausartak. Hauek ikusita, eskalada gure neurrira eginik ez dagoela konprenitu genuen eta beste aukera on baten faltan, bertatik Arrasateraino oinez etortzea erabaki genuen. Beraz Atxartetik atera ginen eta bi ordu garrengo Pol-Poleko zelaian ginen, bertan ura gura lain dagoenez, nahiz eta aurten sikute gogorra joan, potiak bete, mosua freskatu eta hamarretakoa bertantxe egitea erabaki genuen. Horren ostean



sabela beterik Anbotoko maldei heldu genien. Ordu beteko nekeak puntaratu ginduen eta saritzat akaso, eguraldi narras hark Armaixo eta Durangaldeko bailaren edertasuna une batez eskeini zigan. Handik Tellamendira abiatu, edertasuna une batez eskeini zigan. Handik Tellamendira abiatu ginen Zabalhaundi eta Ipisti zehar. Ordu

bete emanda gero, Tellemendiko kurtzeko bertsoak irakurtzen geunden. Handik Arrasate begibistan geneukalarik jeisteari ekin genion. Bi aukera genituen, bata Besaidetik bueltan edo Garagartzatik zehar bestea, denera ere ordu beteko oinezaldia etxeraino.

Argazkiaren azpian: Amarratzen antzera gorantz joateko aukera.

*Hankamotz*

ESTETIKA ETA LURRUN ZENTROA

# Miren Arrieta

**GIMNASIA PASIBOA EGITEKO MAHAIK**

sistamarik modernoena jarri duela funtzionamenduan jakin erazten duizu  
Zatoz eta kontsultaiguzu

**LEHEN SAIOA DOAN**

Konpromesurik gabe  
Zerkaosteta 12, Arrasate Tfnoa: 79 00 35.

**VE ECUADOR**

Kontzesiño 2,  
Tfnoak: 79 14 06  
ARRASATE

**LARRINGAN**

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA  
IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

# Gorka

**ILEAPAINDEGI  
MIXTOA**



Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoak: 79 96 80 eta 79 63 67  
ARETXABAETA

**ARRASATE  
PRESS**

*astero zuekin*

# Jesus Elkoro

**Elektroteknika**

**T. B.**

**Bideo**

**Bideo kluba**

**Etxeko tresnak**

(Garibai 10)



**ARRASATE Tfnoa: 79 18 86**

## AUSTIN ROVER



## AUTO SAN ANDRES

**IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA**

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

## LODITASUNA eta ZELULITISA

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik,  
aprobetxa zaitez gure esperientziarekin

Kontsulta ARRASATEN: SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA  
Informatzeko: Tfnoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

**INSTITUTO MEDICO GASTEIZ**



Urriak 21, larunbata. Gaueko 10,30etan.  
Amaia antzokian.

Teatro "Gasteiz"

# TODAS TENEMOS LA MISMA HISTORIA

Franca Rame  
Dario Fo




Arrasateko Udala  
Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# FAGOR



## TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



## EGIDO

Ordezko Piezak

Automobilerako ordezeko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

## ILE - ERORKETA

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik,  
aprobetxa zaitez gure esperientziarekin

Kontsulta ARRASATEN: SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA  
Informatzeko: Tfnoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

INSTITUTO MEDICO GASTEIZ

## berango

Arotzeria orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atea  
Legarreko pabiloi industrial  
(Behea) Tfnoa: 79 01 92  
ARRASATE

## ITSASKI

arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94

## UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako  
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

## ARRASATE PRESS

Bidaliezazkiguzuzure kolaborazioak



**ETXEBIZITZAK**

- **Urrian eta azaroan zehar pisu baten gela behar dut.** Lekurik badaukazu deitu: 79.80.86. Luis.
- **Bilbon (Deusto).** Pisu merkea konpartitzeko bi neska behar ditugu. Tfnoa: 79.83.63. Marian.
- **Pisua salgai Arrasate edo Aretxabaletan.** Tfnoa: 78 26 97.
- **Neskez osatutako pisu bila ari naiz** Arrasaten . Tfnoa: 79 20 11. Luz. 296 . 9etatik 1etara edo 2etatik 5etara.
- **Pisua osatzeko lagun bila** gabiltza (gelan bakarrik egongo litzateke). Interesatuak deitu 79 48 11 telefono zenbakira (lanorduetan) Antoni Kruz edo Karlos Nikolasi.
- **Neskez osatutako pisu bila ari gara** Arrasaten. Tfnoa: 79 52 22, luz.165.. Mertxe. (Deitzekotan, 9etatik 12'30etara edo arratsaldeko 2etatik 5etara bitartean)
- **Pisua salgai Aretxabaletan,** Portasolen. Tfnoak: 79 81 23 edo 79 63 84
- **Pisua errentan hartuko genuke** Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 75 42. Goizeko 9etatik 1a bitartean deitu, astelehentik larunbatera
- **Pisua salgai Munar inguruan.** 3 logela, egongela, jangela, sukalde, 2 bainugela, berokuntza zentrala, ganbara eta garajea (azken hau aukeran). Goizeko 7etatik arratsaldeko 8ak bitartean 79 39 39 edo 79 13 77 telefono zenbakietara deitu, asteburuan izan ezik.
- **Donostian konpartitzeko** etxebizitza behar dugu. Dei egin 79 67 76 edo 79 59 11 tfnoetara
- **Aretxabaletan etxebizitza salgai** Lora-mendi kalean. Tfnoa: 790445
- **Telefonikako langileak** etxebizitza errentan hartuko. (3-4 pertsona). Berga-

ran edo inguruetan. Tfnoak: 52 19 94 (Jose Mari), 39 84 11 (Javi), 46 78 38 (Jose Luis).

- **Umerik gabeko senar-emazteak irakasle gazteak, etxebizitza behar du** lehenbailehen Bergarako hirigunean. Dei egin 62 02 28 Tfnoa.
- **Etxebizitza salgai** Zabalotegi dorrean, Bergaran. Informazio gehiagorako deitu 76 17 37 edo 76 25 89 Tfnoa.
- **Arrasateko erdialdean alokairuan behar dut** lehenengo pisu bat edo beste bat igogailuz. Tfnoa: 78 07 46

**LANA**

- **Euskaraz dakien pertsona** haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko, behar dugu. Tfnoa: 79 72 75.
- **Emakume edo neska** behar da etxeko lanen eta hiru haurren ardura hartzeko. Euskaraz baldin badaki hobeto. M. Kruz Rodriguezengana zuzendu. Erguin kalea,3 bis. 3.a.esk.
- **Pertsona arduratsua** eta euskaraz dakiena behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko. Tfnoa: 79 86 86
- **Euskaraz dakien emakumea** etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73
- **Neska arduratsua** haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna, informeak ditut. Tfnoa: 79 93 17.
- **Neska arduratsua** etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- **Inglesezko klaseak** emateko pertsona behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobeto) interesatuak deitu 780785 10etatik ordu 1etara, astegunetan.
- **Neska haurrak zaindu** edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.

**SALEROSKETAK**

- **Diskette berriak salgai** 150 pezetatan bakoitza. Tfnoa: 79 71 26. Unai.
- **4/4 neurriko bigarren eskuko bibolina salgai.** Interesatuak dei telefono honetara: 79 52 15.
- **Hollister bildumako eta Jaguar bildumako liburuak salgai,** erdi prezioan. Ia berriak. Deitu 79.80.91 zenbakira. Otorduetan.
- **Motorra salgai,** Morini 250 cc matrikula SS-W. Tfnoa: 11 77 45. (9etatik aurrera)
- **Bizikleta salgai.** egoera onean. Zeus 2001. 40.000 ptan. Tfnoa: 78 00 35. Javier.
- **Senar-emazte logela salgai** egoera onean. Tfnoak: 79 48 92-79 51 50
- **Kanadiar kanpin denda salgai** (2-3 lagunendako). Merke. Tfnoa: 79 68 45
- **60 W-ko Roland kitarra anplifikadorea salgai** (egoera onean). Tfnoa: 79 95 83. Iosu.
- **Liburu bilduma salgai.** 1952tik 1987ra bitarteko Planeta sariak eta 1969tik 1987ra bitarteko Ateneo sariak. Tfnoa: 79 15 96.
- **“Cremallosa” eta puntuzko jantziak plantxatzeko den tresna berezia salgai.** Egoera onean eta merke. Tfnoak: 12 16 26 eta 12 15 84.

**DENETARIK**

- **Etxeko gauzak** (altzariak, telebistak,...) bota behar badituzu, mesedez, bota aurretik deitu guri, tfno honetara 79 84 76,9etatik aurrera.

†  
**ARRASATEN HILDAKOAK**

Josefa Afrais Gesuraga.  
72 urte. Urriaren 11n

Vicente Arteaga Isasa.  
80 urte. Urriaren 13an

J. Antonio Ezpeleta Gutierrez.  
42 urte. Urriaren 15ean

Romualdo Estrella Portalo.  
55 urte. Urriaren 15ean.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**


**TESTUA:**.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**Arrasate Pasealekua 3 bis, etxebeha.  
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64**

## Famauen ahotik

**JOXE MARI OXIÑA (eta II):**

*“Behin kantau juat plazan, bertan Baserrin ordez”*



*JOXE MARI ERROTARI*

*Bertsolari txarra ez, ona errotaria.  
Neurri berdintsukoa zan nekazaria.  
Gañetikan Roneon bere lanterria.  
Ura're altxa zuan altsuan tokira.  
Joxe Manuel Arriola.  
("Nekez bada ere")*

### Errotarixen sindikatuko delegau

Sindikatu eukitte gazak, ni nitzuan "delegau del Valle de Leniz". Hamalau urte egon nitzuan delegau.

Distrito bakoitxien delegau bat eta hillien behin Donostien juntie abogauekin. Sindikatu pagetan gaixuan eta delegauek hillien behin 130 pezeta Donostiera bieje.

### Kastigaute, errotie zerraute hiru urtien

Errota asko egon zuan zerraute. Hori "Servicio Nacional de Trigo"n kastigue zuan. Hiru urtien zerraute egon nitzuan ni eta beste bi bider multie pagaute. Inspektorie etorten zuan katxietan eta orduen gaukan "Kartilla makilar" eta hor galtzen gitzuan gu.

Baserritarrak, 60 anega auketak, 20 apuntetan jittuan bestela entregau ein bihe zittuan eta, eta hareik tranpan pasau bihe ittuan eta guk kartillakuek baiño gehixau eziñ eñ eta gabez-eta ibilli biher izeten gaixuan.

### Oin xei urte itxi

Alabiei esanda ninguan "neuzen arte jarraitu" bañe ez,...

Hamairu kilo arto, garirik etxak,... Hamairu kilo artoaittik, 1,30aittik, lana eingo dok pa? Baserritik 13 kilokin jatozan; bai "antajo",... taluek eitteko-ta, morokillek eitteko-ta,... Eta holaxe, 83en inundazifuekin dana lurrez bete zuan eta harrazkero etxuat martxan jarri.

Honeik errota-kontuokin danokin liburue jak 7.000 pezetakue, neuandik urtendakue. Hemen egon zittuan bi lagun bi urtien.

### Bertsolarixe be bai

Agure zahar bat juan, Bergaako Tellerixako semie, Pello Errota, Txirrita, Txapel, Udarregi, horreik danokin ibilittekie, 17 urtekin hari bertso bat bota nutzan eta bereana fateko-ta aguriorrek hartu ninduan ondora ta hareaz ibiltten nitzuan. Plazan behin bakarrik kantau juat Mundrauko trinketien. Zittuan Baserri, Uztapide, Lasarte eta Lizaso eta Baserri falta izen zuan eta nik Uztapidekin-dde, Zepai difuntuekin-dde horreik danokin antxifetik kantetan naixuan hona etorten zienien, bazkaitten, eta holaxe kantau naixuan orduen Baserrin ordez. Enbeita falta jatak bakarrik kantetako.

*Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai*

## Zelebrequerixak

— Emoidazu buruan minik emoten eztaben zapata batzuk.

— Baina zela da hori?

— Ba, badakizu ba..., nere andriak burura botatzeko ohiturria dauka eta.

■ ■ ■ ■ ■

— Baiña hi ez haiz sekula garbitzen ala?

— Sekula bez; bestela alperrik galduko nintzakek.

— Baiña gizonak zela esan leike hori?

— Medikuak diñuan burdiña bezelakotxe osasuna jaukat eta bustiko banintz ugartu egingo nintzakek.

■ ■ ■ ■ ■

Auzo bateko jaixak zien eta Epelarre pandero-joliak han ziharduan panderua jo eta jo, trikitilarixai lagunduaz. Andra bat ei zeukan begira begira, urtetan aurrera zoiana baiña umore onekua. Atsenaldi baten aurreratu ei jakon andrioi eta esan ei zotzan fresko-fresko:

— Zu Epelarre e, zu zeure denporan makiña bat narru jotakue izango zara.

— Bai kontestau ei zotzan Epelarre suabe-suabe eta gehixenetan kobranta gaiñera.

■ ■ ■ ■ ■

Aintziñan gizon bat itto ei zan Maltzaga inguruan ufalak harrapauta. Haren gorputzaren bila hasi zienian abixu hau pasau zan inguruko herrixetara gizonan ezaugarri honek emonaz: "1,62 m. alturia, ile baltza, begi urdiñak, narruzko zapatak. Errez ezautzeko modukua da, erdi plaentziar eitten dau berba eta"

*Juan Martin Elexpuru*

**PUB  
HAIZEA**



**MARTINEZ**  
**aroztegia**  
Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzariak

Araba Etorbidea, 13  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41



Albina Madinabeitia

**O**so gazterik hasi zen Albina Madinabeitia bibolina jotzen, ezaguera zuenetik, haren hitzetan.

Zortzi urterekin Bartzelonara joan zen, Gipuzkoako Diputazioaren beka batez. Han Bruch kalearen 6.ean, bost bat urtez bizi izan zen, Clemente Ibarguren irakasle donostiarraren etxean.

Ramblasetan, Liceo antzokiaren ondoan zegoen "El Siglo" crestetxe handiaren nagusiak nonbaiten entzun eta aipatu dendara gonbidatu zuen argazki hau egitera. Soinekoa amak egindakoa zen. Ondoren nagusi musikazaleak jostailuzko sukalde tresneria joko handia erregalatu zion.

1919a zen. Artean Albinak hamar urte baino ez zuen.

## BASABE JATETXEA

Eguneroko menua  
eta karta

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak


Harriatz 41. 29 70 41

ARETXABAETA

## ARRASATE PRESS

*astero zuekin*

# Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezzen.

Zuk nahi duzun bezala.

## **PENTSIO-PLANA**

Errentagarria, zergaringarria eta zure neurrikoa. Etorkizuna duen dirua.

## **AURREZKI-PLAN ASEGURATUA**

Oso interesgarria eta zergaringarria. Seguru hazten den dirua.

## **AURREZKI-PLANA**

Interes handia aurrezki txikiarentzat. Piskanaka gehiagotzen den dirua da.

**AURREZKI-KUTXA**  
MUNIZIPALA



**CAJA DE AHORROS**  
MUNICIPAL

**Azken benetako amodio poema**

Gizonak  
mahai gainean uzten du edalontzia;  
biluzik,  
patrikaren hondoan arakatzen du,  
harrotuz  
amodio zaharren hautsak, hotzak aspaldi.

Bistatik  
arrapala batean pasa zaizkio:  
begiak,  
ipuin eske zebiltzen ezpain umelak,  
lepoak  
beso lagun batzuren behar gorrian,  
bidaiak,  
behebarruak, parkeak, karta bigunak.

(Noizean behin elkartzen dira  
gaueko ordurik isilenetan  
izandakoaren oihartzun mingotsak  
ta izango denaren galdera ikurrak)

Gizonak  
aspaldi ez du galderik ispiluentzat;  
erlojuari samur so egiten dio  
ta azken poema hauxe izkribatzen du. ❁

*Jon Iriberr*



**BATZOKIA**  
**jatetxea**

Eguneroko menua  
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41  
Arrasate



**ERAÑA**  
**AHOLKULARITZA**  
**OROTARAKO**  
**ASEGURUAK**

Kontzesiño kalea 4, behea  
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

**ARRASATE**  
**PRESS**

*asrtero zuekin*

■ **Aitatasuna publizitatean:** Egun hauetan, ez-ohizko iragarkia ikusi dut ETBIn, euskaraz, txarto ez banabil. Berebela gidatu eta erosketak egiten dituen bitartean umea bularrean daraman gizona agertzen da. Pozik doa aita, irribarretsu, eta ingurukoak ere sinpatiaz begiratzen diote bikote bitxiari. Bitxia ez horrelakorik inoiz ikusten ez delako edo gaizki dagoelako, baizik eta arraro samarra delako publizitate enpresek rol eredu aldaketak bere egiten ikustea. Enpresa hauen helburuetakoa inpaktua lortzea denez, ezin esan kasu honetan lortu ez dutenik. Goxoegi izan daitekeen arren, iragarkia ondo egina dago. "Ongi etorri Prenatalen mundura. Orain arte amak eraman du haurra bederatziz hilabetez. Orain zuri tokatzen zaizu". Garaiekin doan mezua. Esan diezaietela bestela nire belaunaldiko askori, hurbil-hurbilekoak ere barne. Aupa lagunok, ongi etorri pixoihalen mundura!

■ **"Kirikulera" Euskadi Irratian:** Inma Lopetegi Lizarrako ikastolako irakaslea itzuli egin da Euskadi Irratira, larunbat goizetako "Kirikulera" irratsaioa aurkeztera. Inma ibilia da era horretako programak egiten eta badaki zer duen esku artean. Badaki gozoa izaten umeekin, ez-titsuegia izan barik. Bederatziz t'erdietan "Kiriku albistegia" dator, nire eritziz gehiegi landu gabekoa baina sekulako posibilitateak lituzkeena, programa interesgarriagoa bihurtzeko orduan.

Adi bada umeok, larunbat goizetan bederatzietatik hamarretara doan irratsaio honekin. Deitu lotsa barik eta diberti zaitezte kirikuz kiriku, kirikuleran. Eta kirikua zer den ez badakizue galdetu Inmari.

■ **Aste politikoa aztertzen:** *Iturri onetik* izen jenerikoaren barruan astelehen gauetan -9:00etan hain zuzen- izaten genuen saioa bueltan dugu Euskadi Irratian, baina ez iazko hizlariekin. Mario Onaindia, Jose Felix Azurmendi, Jose Juan G. de Txabarri eta Pako Garmendia joan egin dira. Haien ordez Pello Zubiria "Argia" astekariko analista, Nerea Azurmendi, "Gaur Express"koa, Jose Ramon Beloki *Deiakoa* eta Ramon Etxezarreta idazlea izango ditugu astelehenero, baina ez urriaren 16an, ezta 23an ere, hauteskunde kanpaina dela eta, astearen gorabeherak komentatzen. Aipatu egunetan Senadua eta Kongresuaren inguruko debateak antolatu dira. Talde berria U-29an estreinatuko da, bozketa egunean, hautategiak itxi ondoren. Beti bezala, Odile Kruzetaren zuzendaritzapean. Zorte ona, talde berriari.

Joxe Aranzabal



## gusto baduzu

■ **Capone:** Steve Carverrek zuzendutako filmea, larunbatean 15,20etan. Antzesleak B. Gazzara, S. Blakey eta H. Guardiano. Pelikula hau Alphonese Caponi buruzko benetako istoria da, 1920. urtean eta New Yorken kokaturik. Chicagoko gangsterra den Johny Torriok, Caponiren trebetasuna poliziari arazoak sortzeko erabiltzen du. Caponek Torrio hiltzea erabakitzen du, horrela berak kontrol guztia izanen duelako.

■ **Saskibaloia:** Zaletuentzat, Caja Bilbao- Taugres Euskal derbya ikusteko aukera, igandean, 18,20etan. Talde hauen arteko lehenengo neurketa dugu aurtengo ligari; biak ere nahiko makal hasi dira, nahiz eta fitxaketa berri ugari egin: Sibilio, Rivas, Waitjers...

■ **On Kixote eta Santxo:** Astelehen gauean, 9etan, Miguel de Cervantesen obran oinarritutako telebistarako egokipena. Telesailan, bi heroien bizitza. Bostgarren kapitulu. Euskal Telebistak eta Georgiakoak (E.S.S.B.) elkarrekin ekoiztua

## bideoak



### Zergatik Panpox

Emakumea, hogeitamar urte inguru, ezkondua eta seme baten ama, senarrak alde egin diolako bakarrik gelditzen da. Urte batzuetan bere senarra izana zergatik joan den ulertu nahian saiatzen da. Zergatik utzi dituen bera eta bere semea. Zergatik? 2.000 pta. VHS nahiz Betan.

## OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

### Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

### Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

### Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

J	I	P	O	I	W	A	L	T	E
A	R	E	G	A	S	T	E	I	Z
B	E	F	I	M	A	U	T	I	L
O	T	U	J	U	L	I	F	A	E
I	S	O	D	R	A	K	U	E	B
D	A	U	T	R	O	D	O	G	I
K	I	J	A	I	I	M	R	T	E
U	B	A	H	O	G	A	E	N	E
H	O	N	G	R	A	S	B	E	M
I	T	N	I	A	R	U	G	A	P

(Soluzioak: 21. or.)

## Euskal Herria ezagutuz

Bila itzazu hizki zopa honetan Arabako bost populaziotan garrantzitsuenen izenak

## Hiztegia lantzen

### ANDANA

- A) Talde edo multzoa
- B) Patxarana egiteko erabiltzen den fruitutxo.
- D) Eskopetaren atzekaldea, sorbaldan ezartzen dena.
- E) Amilpe edo "barranko" sakona.

Mokordo

# Horoskopoa



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Oraindik garaz zaude pentsatuta zenuenari ekiteko, baina erabakia ez utzi biharko. Bestalde, kontuz inbertsiorik egiteko ordutan, zure ekonomia makal dago eta.



**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Orain arte bezala jarraituz gero, ekintza berriren batean sartzea ondo letorkizuke, aberasgarria gertatuko bait litzazuke. Ezin zara geldi egon arazo guzti guztiak konpondu arte.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Ahaztuta zeneukan pertsona batekin topo egingo duzu aste honetan eta ekarriko dizun berriak harrিতuta utziko zaitu, baina lasai, lehenengo momentuan izango da eta.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Dituzun sekretoak behintzat lagun onenari argitu beharko zenizkioke. Gaizki portatzen ari zara berarekin. Bestalde, zorte ona izango duzu jokuan. Saia zaitex.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Egin duzuna egina dago, orain ez eman bueltarik eta ez damutu, ez da hainbesterako izan. Ondo pasatu baduzu, nahikoa.




**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Kontuz esaten duzunarekin, norbaitek gaizki uler diezazuke eta. Nahiz eta zure asmoak onak izan, ez da nahikoa, itxurak gordetzea ere komeni zaizu.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Asko ikasten ari zara aspaldi honetan, segi horrela azkenean emaitzak ikusitakoan konturatuko zara pena merezi izan duela. Ez jaregin orain.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Orain arte dena ondo badoakizu ere, bide horretatik segitzeko dituzun arazoi guztiak ondo aztertu. Agian espero ez zenuen zerbaitekin aurkituko zara.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Diru gehiegi gastatzen ari zara aspaldi honetan, ez duzu batere aurreratzen eta hemendik aurrera asko beharko duzu zauden zulotik ateratzeko.



**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Egunero egiten duzuna ahaztuz ez duzu ezer lortuko, baina saia zaitex asteburuan behintzat irteten, giroz aldatzea beharrezko bait duzu momentu honetan.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Ez duzu jarrera horrekin jarraitu behar, gauzak nahi duzun moduan atera ez badira ez bota inori errua, eta aldatu aurpegi ilun hori.




**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Zure buruari proposaturikoa lortu arren, ez zaude batere pozik. Hobe zenuke ospatzea eta beste kezka hauetaz ez gehiegi arduratzea.



“Elurra”. Roberto Mendi

*Opel Kadett*



**ONA BAINO  
HOBEA**

Autogintza esperientzia handia duena bakarrik has daiteke 1988an gehien saldu zen autoa hobetu nahian. Horixe egin du OPELek, eta hona emaitza: OPEL KADETT berria.

Zatoz ikustera Opel kontzesionari Ofizialetara.

Zain daukazu.

**BERRIA**

Zain gaukazu

**TALLERES OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

**TALLERES ALTAMIRA**

Iparagirre. Tfnoa: 72 33 71

Kontzesionari ofizialak

**OPEL**   
Hobeak esperietziagatik





**HIRE**

Liburu eta  
oparidenda

Iurrietz 4, Tfnoa :79 14 84

# ARRASATE PRESS

**L**ARRINGAN

auto gidarien eskola  
**KLASE TEORIKOA  
IRAKASLEAREKIN**

Garibal 3, 79 22 96  
ARRASATE

Arrasate 1989ko Urriak 20

Ale berezia

Doan banatzeko

PSOEren erabateko gehiengoa kolokan

## Oraingoan ere, denok pozik

Arrasate. Lasaitasun handiz egin zen atzoko bozketa eguna. Eguraldia primerakoa izan zen eta goizean mugimendu handirik ikusten ez zen arren, jende asko txo ikusi genuen bizikletan eta mendira bidean. Arratsalde partean zenbait hautategietan jende ugari zebilen gora eta behera. Zortziretan hautesmahaiak isteko ordua heldu zenean ere lasaitasuna zen nagusi.


Hainbat bozeramalek azpimarratu zuten, atzokoak izan ziren hauteskunderik baketsuenak. Gauza arraro bakarra, baina dirudenez egunarekin zerikusirik ez zuena plaza, ondoko taberna bateko tiroketa izan zen. Goizaldean eman zen eta oraindik ez da ezer argitu horren inguruan.

Arrasateko datuak nahiko harriarriak dira. Eurohauteskundeetako joerari autsiz, HBk zinegotzi bat irabaziko luke (5etik 6ra), PSOEk 5ekin segituko luke, PNVk ere berdin 4rekin, EAK bi

**HBk zinegotzi bat irabaziko luke, EAK bi galdu eta PPK bat irabazi. Besteek berdin segituko lukete**

galduko lituzke, 5etik 3ra, EEK birekin segituko luke eta PPK bat irabaziko luke. Datu hauek erlatibizatu egin behar dira, noski, udal hauteskundeetan jendeak beste faktore batzuk kontutan hartuta ematen bait du botoa, baina beti adierazten dute zerbait, joeraren bat besterik ez bada.

Ez zen ospakizun berezirik egon, hamarrak inguruan Irati elkartetik jaurti ziren txaplieguak ezik. Une hartan komunikabideak ematen ari ziren albistea zera zen, PSOEk ez zuela lortuko erabateko gehiengoa. Akaso hori izango zen ospakizunaren arrazoia.



Joseba

**Politikari gehienak goiz.** Atzokoan, Arrasateko zenegoztiek nahiko goiz eman zuten botoa. Alkatea, Xabier Zubizarreta 10,30ak aldera hurbildu zen hauteslekura, bi *bizkarzain* itzelekin hurbildu ere. Bere seme Ekain eta Oihan-ek hautesmahairaino lagundu zuten, aita zaindu eta nagusi egiten direnerako ikasteko asmoz. Lasaga, ostera, bere partidoko ikuskatzaileentzako ogibitartekoekin agertu zen.

Hirutik hiru

## HBk lortu


## senatore gehien Mondragoen

Arrasate. Kasu gutxi egin zaie Senaturako paperei. Hori begi bistakoa izan zen bart gauean irradi-telebistek eskaini zizkiguten emanaldietan. Datu eta analisi gehienak Kongresuari begira egin ziren. Azken orduetan bakarrik hasi ziren Senatuari zegozkion datuak ematen.

Gauza bera gertatu zen Mondragoen. Kongresurako emaitzak zenbatu bezain aguro, partiduen ordezkariak alde egiten zuten datuekin, bakoitza bere egoitzara.

Senaturako Txillardegik irabazi zuen Arrasaten, 3.196 botoarekin. Jose Luis Elkorro, Bergarako alkatea, izan zen bigarren, 3.184rekin eta Iruin hirugarren, 3.173 botoarekin. Laugarren senatorea Gasteizko Legebiltzarrak izendatzen du. Gogoratu hauek Arrasateri dagozkion datuak baino ez direla.

### ARRASATEKO EMAITZAK



U - 29 1989	Erdialdea		Santamaina		Musakola		S. Andres		Uribarri		Auzoak		Denetara	
	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%
Hautesleak	5.429	100,00	2.667	100,00	2.536	100,00	3.687	100,00	4.469	100,00	1.265	100,00	20.053	100,00
Abstentzioa	1.499	27,61	791	29,93	759	29,93	1.178	31,95	1.374	30,75	808	63,87	6.409	31,96
HB	991	18,25	317	11,89	576	22,71	523	14,18	741	16,58	133	10,51	3.281	16,36
PSOE	456	8,40	816	30,5	322	12,70	754	20,45	810	18,12	17	1,34	3.175	15,83
EA	790	14,55	100	3,75	301	11,87	304	8,25	428	9,58	106	8,38	2.029	10,12
PNV	940	17,31	130	4,87	282	11,12	370	10,04	431	9,64	129	10,20	2.282	11,38
EE	370	6,82	98	3,67	90	3,55	188	5,10	305	6,82	9	0,71	1.060	5,29
PP	208	3,83	77	2,89	80	3,15	119	3,23	122	2,73	48	3,79	654	3,26
CDS	59	1,09	87	3,26	46	1,81	98	2,66	89	1,99	3	0,24	382	1,90
IU	52	0,96	79	2,96	38	1,50	76	2,06	105	2,35	3	0,24	353	1,76
Besteak	34	0,63	66	2,47	25	0,99	53	1,44	40	0,90	9	0,71	227	1,13



Musika hotsa eta irudia dira  
gure gaiak

Zuen botoa eman diguzuenok  
ez zarete damutuko

Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE



### Labur

Udaletxean aurkeztu ziren hamabi erreklamazioetatik zortzi konpondu ziren..

Ferialeko mahai batean gertatua. Emakume batek karneta aurkezteko orduan ONCEko boleto bat ere eman zion oharkabean mahaiburuari. Botoa emandakoan, nortasun agiria itzuli eta ditxosozko boletoa ere bai. Andra konturatu ez, antza, berea zela eta pozik baino poziago irten zen boletoa erregalatu ziotelakoan. Handik puntuko hiruzpalau pertsona sartu ziren gelan: "hemen erregalatu dituzte ONCEn boletoak?".

Emaztea ohean gaisorik eta, badaezpada ere, senarrak haren nortasun agiria hartu eta Ferialeko mahai batera jo, botoa bion izenean eman asmoz. Ezin, ordea, horrelakorik egin.

Erguinen Madrileko *Emmopublica Random* inkesta etxeko mutil bat egon zen atarian irtetzen zirenei botoa nori eman zioten galdetzen. Erantzun ez ziotenak asko izan baziren ere, gehiago izan ziren botoa aitortu ziotenak.

Bozketa eguna patxadosoan izan zen arren, igande goizaldeko zazpiak laurden gutxitan norbaitek lau tiro jaurti zizkion plaza ondoan dagoen "Zuk nahi" tabernari. Nor ote?

Arrasate Telebistakoak su eta gar ibili ziren artxiborako irudiak filmatzen.

### Agenda

ZINEA

- Naturari buruzko zine-zikloa: "Salvemos los bosques", "El juego de la paz". 8etan Amaian.
- Alai: "Encerrado". 7, 9,30etan.
- GOARDIAKO FARMAZIA
- Azkoaga

## Datuak nora, balorazioak hara

auteskunde egunean bertan, eskuratutako lehen datuen arauera alderdi politiko ezberdinen eritziak jaso nahi izan genituen. Talde bakoitzak komeni zitzaizkion argumentuak erabili zituen, ohizkoa den bezala. Azkenean, mota guztietako balorazioak entzun ziren ordezkari ezberdinen ahotan.

HBren egoitzan, Arrano Elkartean, hamarrak ingururako egina zuten Arrasateko datuen bilketa. Aurpegi luzeak, seguraski igoera sendoagoa espero zutelako. Bapateko balorazioa emateko orduan, 86 eta 89ko emaitzak nahastu ziren. "Baina azpimarratu nahi dugu Arrasaten lehen indar politikoa izaten segitzen dugula. Botu gutxi batzuk irabazi ditugu, nahiz eta alderdi guztiak

gure aurka gogor aritu".

Elkartetxean, lagunarteko afarian itxaron zituzten hauteskundeetako emaitzak. "Ondo ibili gara, tipoari eutsiz. Igoera tipia izan dugu eta ez askok espero zuten jipioa. Harrigarria da PSOEek lortu duen igoera. PNVkoak ere majo atera direla esan behar. Azkenean, hori, espero genuena gertatu da".

Ezkeretik ere patxada handia. "Alde batetik partizipazioa, inoiz baino botu gehiago eman da. Horrek adierazten du jendea demokraziaren jokua bultzatzen ari dela. Gure alderdiari dagokionez, zerrendetan berriztapen ugari egin dugula kontutan izanik, emaitza onak izan dira".

Batzokian ez jende askorik, baina guztiak ere pozik. Alderdi euskaldunen artean beraiek izan

dute bultzada nabariena, gutxi gora behera 400 boto irabazi dituztelarik. "Talde politiko bezala, balorazioa egiteko orduan oso pozik gaudela adierazi behar. Dena den, beste gauza batzuk ere kontutan hartu beharrezkoak dira. Adibidez, etorkizun hurbilean behintzat Arrasaten HB eta PSOEren arteko bipolarizazioa geroz eta argiago nabari dela, eta noski, hori kaltegarria da besteontzat".

PSOEren egoitzan lasaitasuna zen nagusi. Estatu mailan erabateko gehiengo zalantzan jarri bazen ere, pozik zeuden Arrasaten izandako igoerarekin eta bozketa egunaren lasaitasunarekin. "Herritarrek beste behin beren bake nahia erakutsi digute. Hau izango zen bozketa egunik baketsuena eta hori oso inportantea da".



Joseba

**On Tomas Iturberen estiloa.** Eleiz gizon eta emakumeek goizeko lehen orduetatik hartu zuten parte hauteskunde egunean. Jose Mari Astigarraga parrokoa Ferialean, Udalara bideko klausura monjak Uribarrin...eta argazkian azaltzen den Tomas Iturbe, Udalako parrokoa ere bai. Sotana eta guzti, baina, politikari askotok baino itxura hobez.

### Biharamona

Bukatu da. Dagoenko, hauteskundeetako emaitza ezaguna da eta hautagaiak -batez ere aukuratuta izandakoak -atseden laburrerako gertutzen ari dira. Ez da makala izan kanpainari ekin ziotenetik eraman duten martxa.

Amaitu dira mitinak, larrosen eskaintzak, hauta-bazkariak, elkarriko deskalifikazioak... inkestak; zorioneko inkestak!!

Hasiak dira emaitzei buruzko aitortpenak: den-denak garaile. Batzuek europar hauteskundeak hartuko dituzte erreferentzia bezala. Beste batzuek 86ekoak.

Orain dela hamar urte ez bezala, hautagai eta hauteslearen arteko komunikazioak estilo eta taktika desberdinak behar ditu. Eta garbi ikusi da, ene ustez, kanpaina honetan. Hiritarrok badakigu hautagaiak zer eskaintzen dituzten, euren agintza eta promesak ongi bereizten ditugu eta ondorioak nolakoak daitezkeen ere aurretik asma ditzakegula iruditzen zait. Beraz, orain hautesleak ez du ZER bakarrik kontutan izaten; NOLA eta NOIZ ere garrantzi handikoak bilakatu dira.

Eta orain zer? Hauteskunde hauen ondoren miraria gertatuko dela uste duenak oker dabil. Ez dugu horretarako botoa eman. Mekanismo demokratikoez gure bizimodua aurrerantz bultzatzen lagun dezaten hurreratu gara hauteskontzira, eguneroko gorabeherak uberkatik irten ez daitezkeen alegia.

Oraingo, lasterketa amaiturik, hurrengoko deialdietan pentsatzen ariko dira dagoeneko, gizararen lema zuzendu nahi dituztenak.

Bienbitartean, gutariko askok NOLA eta NOIZ horiekin dugu amets egiten: Euskadi aske eta paketsua; euskal gizarte osoaren herri-kontzientzia; euskal administralgoa...; hau da, huskeriak.

Josemari Velez de Mendizabal

### AZKEN HAUTESKUNDEETAKO BOTU-BILAKAERA ARRASATEN

	86 ESPAINAKO KONGRESUA		86 EUSKO LEGEBILTZARRA		87 UDAL HAUTESKUNDEAK		87 EUROPAKO LEGEBILTZARRA		89 EUROPAKO LEGEBILTZARRA		86 ESPAINAKO KONGRESUA	
	Botuak	%	Botuak	%	Botuak	%	Botuak	%	Botuak	%	Botuak	%
ZENTSOA	19.938	100,00	20.189	100,00	19.828	100,00	19.807	100,00	20.082	100,00	20.053	100,00
ABSTENZIOAK	6.980	35,01	5.581	27,64	6.264	31,59	6.046	30,52	8.144	40,55	6.409	31,96
EAJ	3.930	19,71	2.567	12,71	2.427	12,24	1.959	9,98	1.875	9,34	2.262	11,30
EA	0.000	00,00	2.852	14,13	2.897	14,61	2.710	13,68	1.991	9,91	2.029	10,12
PSOE	3.229	16,20	3.497	17,32	3.162	15,95	2.915	14,72	2.464	12,29	3.175	15,83
HB	3.113	15,61	3.264	16,17	3.373	17,01	3.544	17,89	3.219	16,03	3.281	16,36
EE	1.032	5,18	1.345	6,66	1.342	6,77	1.210	6,11	978	4,87	1.060	5,29
BESTEAK	1.356	6,80	938	4,87	363	1,83	1.117	5,94	1.047	5,21	1.616	8,05

